



begira



Gabon Zoriontsuak

38. zk
2016ko abendua

 **ULMA**

IÑIGO UCÍN.
MONDRAGONeko
Kontseilu Orokorreko
Lehendakaria

ULMA, Markaren
Balioa



mahai ingurua

Unibertsitatea-enpresa harremanak



ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA <
Enkofratze soluzio berritzaileak
abangoardiako arkitekturan.



ALBISTEAK >
ETA GAURKOTASUNA
ULMA Agrícola
aditua da
korrosioaren
kontrako babesean.



MAHAI INGURUA <
Unibertsitatea-Enpresa
harremanak



> ULMA TALDEKO BESTE TALENTUAK
Aritz Kortabarria, igeri, lasterka, pedalei
emanez. Esfortzua bizi terapia gisa.



> ULMA FUNDAZIOA
Beste urtebete
jarduera bizian.



2016ko abendua

- 4 **albisteak eta gaurkotasuna**
Francisco Javier Elias Chocarro
ULMA Orga Jasotzaileetako gerente
berria da
- Birgaitze energetikoa eraikin klasiko
batean, eraikinaren estetikari eutsiz
- Twitter korporatiboa ULMAn: 1.700
jarraitzaile baino gehiago
- BRIDOR kontrolpeko tenperaturako
automatizazio logistikora batu da
(-20°C)
- 14 **ULMA Taldeko
beste talentuak**
Aritz Kortabarria, ULMA Handling
Systems
- 16 **aurrez aurrez**
IÑIGO UCIN. MONDRAGONeko
Kontseilu Orokorreko lehendakaria
- 18 **erreportajea**
ULMA, Markaren Balioa
- 22 **mahai ingurua**
Unibertsitatea-Enpresa harremanak
- 28 **ULMA Fundazioa**
Beste urtebete jarduera bizian
- 32 **agenda eta iradokizunak**



ARGITARATZAILEA:

Grupo ULMA S. Coop.
Garagaltza auzoa 51
20560 OÑATI

Tel.: 943 25 03 00

ZUZENDARITZA:

Carlos Sarabia
csarabia@ulma.com

EDITORE KONTSEILUA/ERREDAKZIOA:

Nora Altube, Joseba Alberdi,
Elena Goirizelaia, Maria Sendin,
Irene Moreno, Edurne Unzueta,
Romu Arteché, Jesús Mari Eguiluz eta
Carlos Sarabia.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Igone Basterra
ibasterra@ulma.com

INPRIMATEGIA:

Gertu S. L.

EUSKARAZKO ITZULPENA:

EMUN Koop. E.



Paper ekologikoa

ULMA CONSTRUCTION

ULMA Constructionek Estatu Batuetan duen posizioa indartu du, SOCON Forming & Shoring erosituta

ULMA Constructionek SOCON Forming & Shoring erosi du, Estatu Batuetako ULMA Form-Works, Inc. filialaren bitartez, AEBetako hego-ekialdeko kostan duen presentzia handitzeko eta sendotzeko asmoarekin.

SOCONEk Georgian eta Alabaman ditu bulegoak eta enkofratu eta eraikuntzaren merkatuetarako hornitzaile ezaguna da aipatutako zonaldean, 2008az geroztik. Etxebizitzetako eraikinak, altuera handiko eraikinak eta ospitaleak egiteko proiektuak egiten ditu, bai eta uraren tratamendurako plantak eta zubiak eraikitzeakoak ere. Atlantako Braves Stadiuma eta Georgiako Aquariuma dira bere proiektu enblematikoetako bi.

Kokaleku berri horiek eta Floridan laster irekiko den egoitza logistikoarekin, New Jersey eta Marylanden jada daudenekin batera, ULMAk aukera izango du herrialde horretako ekialdeko kostako merkatu osora iristeko, Estatu Batuetako zonalde horretan baitu sektoreak ahalmenik eta hazkunderik handiena. Erosketa horrekin, ULMA Constructionek aurreikusten du datozen 3 urteetan 2015eko fakturazioa hirukoitzuko duela AEBetako merkatuan.



ULMA ORGA JASOTZAILEAK

Hainbat euskal enpresak Industria 4.0 arloko zerbitzura orientatutako negozio eredu berriei buruzko debatea egin zuten

HOGETA HAMAR EUSKAL ENPRESAK PARTE HARTU ZUTEN JOAN DEN IRAILEAN ULMA ORGA JASOTZAILEETAKOEN ETA IK4-TEKNIKERREKOEK OÑATIN ANTOLATU ZUTEN WORKSHOP BATEAN, BERRIKUNTZAREN INGURUKO ESPERIENTZIAK PARTEKATU ETA LEHIAKORRAGOAK IZATEKO.

Bileraren xedea zerbitzuetara orientatutako negozio eredu bideragarritasuna frogatzea izan zen, batez ere industria txiki eta ertainei dagokienez. Gainera, zerbitzazio jardueraren zein fabrikazioko berrerabilpen jardueraren interesatuta dauden enpresek zuzeneko informazioa eman zuten.

Fabrikatzaileak etengabeko presiopean daudenez gero akabera bako eboluzioan dagoen enpresa ingurunera egokitu beharrez, testuinguru honetan funtsezkoak dira halako berrikuntzak. Fabrikazio eredu tradizionalak baztertuta gelditu dira zerbitzura orientatutako jardueren mesedetan, eta joera horrek berekin ekarri du, nahitaez, makina fidagarriago, garbiago, seguruago eta produktiboagoak bilatu beharra, argitu dutenez.

Workshoparen lehen zatian, bereziki nabarmendu zen zerbitzura orientatutako negozio eredu bilaketan teknologiak hartzen duen rola. Horretaz aritu ziren Alemaniako Fraunhofer institututik etorritako adituak, Bresziako Unibertsitatetik (Italia) etorritakoak eta mantentze sistema aurreratuetan espezializatuta dagoen Predict enpresa frantziarrek, euskal egitura

industrialeko zentzoko ordezkariekin batera; horien artean: IK4-TEKNIKER, Orkestra Lehiakortasunerako Euskal Institutua eta B+I aholkularitza.

Era berean, ULMAko floten gestoreak benetako erakustaldi bat egin zuen orga jasotzaile batekin, eta ondoren ULMA, Fidia, Kine Robot Solutions, Motorlan Fagor Automation eta H-ENEA Living Labeko bost adibide espezifiko berri eman zen.

ULMA Orga Jasotzaileetakoek landu duten soluzio teknologiko berriari esker, daukaten orga flota adimentsuagoa izango da, eta horrek aukera emango dio bezeroari produktibitatea optimizatzeko eta mantentze lanak errazteko.

Beste berritasun bat "pultsu elektronikoa" izenekoa da, ULMA Taldeko Mantentze Zerbitzuetan landu dena baita ere. Berritasun honek, bateriaren egoerari buruzko informazio gakoa emateaz gainera, bateriaren bizitza erabilgarria luzatzen du, pultsuen teknologian oinarritutako prozedura baten bidez. Prozesu horri esker, hain zuzen ere, bateriaren bizitza normalaren bikoitza eta, batzuetan, hirukoitza ere berma daiteke.



ULMA AGRICOLA

ULMA Agricola aditua da korrosioaren kontrako babesean

Azken hil hauetan, ULMA Agricolak hektarea bat handitu du 14 urte baino gehiagoz ULMA Agricolaren produktu eta zerbitzuetan konfiantza jarri duen bezero baten instalazioa.

ULMA Agricolak esperientzia luzea du halako kasuetarako soluzio eraginkorren lanketan, non instalazioa gatz maila eta eguzki erradiazio handiko ingurune batean baitago.

Mintegiak dauden instalazio hori bi berotegi modulu jarrita handitu da, horietako bat G6 eta G8 Multikapera Gotikoko nabeekin. Nabeon ekipamenduan, aipatzekoak dira pantaila bikoitza (itzala ematekoa eta energia aurrezten duena), mugigailuak eta ganbera puzgarri bikoitza sabaietan. Bigarren modulua G9.6 Multikapera Gotikoko nabeekin egin da, tximeleta motako leiho zenitalak eta itzala emateko pantailak jarrita.

Kasu honetan, berritasuna, batez ere, 90x50eko arku obalean eta egitura galbanizatu osoa zuriz margotzean zentratu da.

ULMA Agricolak bere instalazio berri guztietan erabiltzen du dagoeneko 90x50eko arku obala. Berez, produktu sendoagoa da, izan ere, %130 inertzia gehiagoz erantzuten du eta %60 erresistenteagoa da 60ko hodi borobilarekin alderatuta.

Egitura galbanizatu osoa zuriz margotuta dagoenez, berotegi barruan argitasun handiagoa eta askoz ere sentsazio termiko atseginagoa egoteaz gain, pintura geruza horrek hobeto babesten du korrosioaren kontra, eta galbanizatuarekin har lezakeen baino tenperatura baxuagoa harrarazten dio egiturari.

ULMA HANDLING SYSTEMS

Berrikuntzaren alde, batera egingo dute apustu ULMA Handling Systems eta IK4-Teknikerrek

ULMA Handling Systems eta IK4-Tekniker zentro teknologikak bien arteko erlazioa sendotu dute eta erakunde kolaboratzaileak bilakatu dira.

Akordioaren helburua ULMA eta zentro teknologikoaren arteko harremana denboran finkatzea izan da. Gainera, ULMA Handling Systems berrikuntzaren alde apustu egiten ari da, soluzio eta sistema berrien garapenean eta kolaborazio honek sistema intralogistikoaren berrikuntzan



sakontzen lagunduko dio.

Produktuen berritzea ULMA Handling Systems enpresaren konpromisoaren parte da, soluzio eta emaitza onenak eskaintzen dituzten soluzioak ikertuz berrikuntzaren bitartez.

ULMA PACKAGING

ULMA Packagingek janari prestatua ontziratzeke soluzioen katalogo berria argitaratu du

ULMAREN KATALOGO BERRIAN ONTZI MOTEN SORTA ZABALA AGERTZEN DA PRODUKTUETARAKO, HANDIZKAKO BANATZAILEENTZAT ZEIN AZKEN KONTSUMITZAILEENTZAT, PACKAGINGEKO BOST SISTEMA BEREZITU EMATEN BAITITU AUKERAN.

Janari prestatuen sektoreak, beste edozein sektore ez bezala, kalitate goreneko ontziratze soluzioak behar ditu, produktuaren aurkezpen bikaina egin ahal izateko eta produktua ezin hobeki kontserbatuko dela ederki bermatzeko, azken erabiltzaileak produktu freskoz eta gozoz gozatu ahal dezan eguneko edozein unetan, era sinplean eta erraz.

ULMA Packagingek badaki bere bezeroen arrakasta haien produktuen kalitatearen menpe dagoela, eta, beraz, produktuak eskaintzeko erabiltzen duten ontzi motaren arabera ere bai.

Horretarako, eta sektore honetara bideratuta ontziratze ekipoa garatzen izan dituen 50 urtetik gorako esperientzia dela-eta, ULMA Packagingek kalitate goreneko soluzioak bermatzen ditu produktuak merkaturatzeko.

Bere eskaintza teknologikoaren baitan sartzen da janari prestatuaren eta haragiz, hegatziz, arrainez, barazki eta frutez egindako jakien industriaren barruko sorta zabal bat.





Twitter korporatiboa ULMAn: 1.700 jarraitzaile baino gehiago

Badakizu oso aktiboa den profil bat daukala ULMAn Twitterren? Gaur egun 1.700 jarraitzaile dauka eta egunero argitaratzen du Taldeari eta bertako negozioei buruzko informazioa. Marka guztiek beren inguruan komunitate bat sortu nahian dabiltzan honetan, ULMA ezin zen atzean gelditu. Gaur gaurkoz, esan liteke Interneten ez bazaude, existitu ere ez zarela egiten; Twitterren ez bazaude, berriz, esan liteke inork ere ez zaituela ezagutzen.

Sare sozialak, eta Twitter batez ere, marka baten benetako erakusle bihurtu dira. Zure sektorean erreferente eta eragile izan nahi baduzu, Twitterren aktiboki parte hartzea "must be" bat da. Ez da hautu bat, erabaki estrategiko bat baizik.

2017. urteari begira, bultzatu egin gura da sare sozialetako komunikazioa, bereziki Twitterri dagokiona. Kanal horretan ezagutaraziko ditu ULMAn, hain zuzen ere, bere negozioekin, alor korporatiboarekin eta bizi garen lurraldeko eragileekin dituen harremanen inguruko albisteak.

Twitterreko profilean ikus ditzakezun edukiak askotarikoak dira: negozioen gaineko albisteak, negoziook joaten



diren azoketako argazkiak eta parte hartzen duten proiektuak, ekitaldiekin nahiz proiektuekin lotutako bideoak, ULMAn inguruko eragile desberdinekin daukan harremana, etab.

Ez galdu denbora gehiago! Jakizu zein diren ULMAn azken berriak eta jarri zure aletxo ULMA komunitateko kide izanda.



ULMA Inoxtrucken ibilgailu autogidatuak Campofrion

ULMA Inoxtruckek fabrikatutako lau ibilgailu autogidatu sartu ditu Campofrion –ULMA Taldeko beste Negozioak diren Handling Systemsek eta Packagingek egindako beste instalazio handi batzuekin batera– Burgosen inauguratu berri duen planta berriaren produkzio fluxuaren automatizazioan. Lito-ioizko bateriekin dabiltzan ibilgailu gidarigabeok eguneko 24 orduetan eta astean 7 egunez ibiliko dira kargak mugitzen lanketa plantan.

Hauxe izan da lankidetzaren proiektu honen fruitua, non ULMA Embedded Solutionsek ere parte hartu baitu; honenbestez, bete da ULMA Inoxtruckek, 2010ean enpresa berria martxan jarri zuenean, bere bide orrian trazatutako produktuaren garapen teknologikoa.



OCPraiko proiektua

Marokoko ingeniari enpresa batek kontratu bat esleitu dio ULMA Conveyor Componentsi, Marokoko OCP fosfatoaren tratamendurako arrabolez eta euskarriz hornitzeko. Erabiltzeko prest motako proiektu hau, berez, Khouribgan, fosfatoa

garbitzeko plantan elikadura lerro berri batean funtsatzen da (7. zk.).

Azken bezeroa OCP da, eta ULMA Conveyorrek arrabola berriak hornitzeko kontratu du lehendik ere munduko fosfato ekoizle nagusia den enpresa horrekin. OCP

asmo handiko proiektu batean sartuta dago 2020. urtera begira, fosfatoa erazteko ahalmena bikoiztu eta prozesatzeko gaitasuna hirukoizteko. Horretarako, 115 bilioi MADeko inbertsio plana onartu dute (10.000 milioi € inguru).



Birgaitze energetikoa eraikin klasiko batean, eraikinaren estetikari eutsiz

ULMA FATXADA AIREZTATUA JATORRIZKO DISEINURA EGOKITU DA, SISTEMA BERRITZAILEAREN ABANTAILEI UKO EGIN BARIK

ULMA Architectural Solutions

Donostiako Gros auzoko Gran Vian dagoen eraikin enblematiko baten fatxada birgaitzen ibili da. Arkitektoa soluzio moderno baten bila zebilen; kanpoaldean kalitate handiko isolamendua jarri nahi zuen, baina eraikinaren lehengo estetikari eutsiz.

Proiektuaren egilea Arcaya Arquitectoseko **Alvaro Arcaya** arkitektoa da. Haren esanetan, "badirudi fatxada aireztatua eta halako sistema tekniko berritzaileei uko egin beharra dagoela ingurune klasikoak birgaitzeko, eta hori ez da horrela, obra hau da horren frog. ULMA fatxada aireztatuak AR Arquitectosen eskakizunetara egokitzen jakin du, eta sistema modular estandarizatuaren irudiarekin apurtzea lortu dugu".

| Nabarmendu beharreko lau giltzarri:

1. Juntura bertikalik ez

Polimero hormigoiak, leiho arteko espazioa baino dimentsio handiagoko formatu bat ahalbidetzen zuen (1.800eko zabalera), ahalik eta distantziarik handiena estaltzeko eta juntura bertikala hobeto disimulatzen. Hala, lerro horizontalek nagusitasuna hartzen dute eta emaitza estetikoa ikusgarriagoa da.

2. Grekari esker, juntura horizontalak ezabatuta

Plaka berezi bat sortu zen 11 mm-ko neurri espezifikoko greka batekin, juntura horizontalaren tamaina bera izan zezan. Horrela disimulatu egiten dira juntura horizontalak. Grekaren garaiera espezifikoa bat bilatu zen plakaren garaierak forjatuen arteko espazioa estal zezan eta begien bistan inolako etenik egon ez zedin.

3. Kolore berezia

Arkitektoak kolore berezi bat eskatu zuen NCS kartaren arabera, ageriko hormigoizko fatxadarekin eta azpadarekin kontrastea egiteko.

4. Egituren kalkulua

Azpiegitura ainguratutako itxitura oso egoera txarrean zegoenez, soilik forjatutako ainguratutako 3 egitura soluzio posible diseinatu behar izan ziren eraikinaren egoerara egokitzeko. ULMA hiru egitura kalkulatu egiteaz arduratu zen, eta bermerik handiena ematen zuena aukeratu zen.



Francisco Javier Elias Chocarro, ULMA Orga Jasotzaileetako gerente berria

ULMA Orga Jasotzaileetako gerente berria, Francisco Javier Elias Chocarro, Administrazio eta Enpresen Zuzendaritzako lizentziaduna da eta Executive Master in Business Administration (EMBA) ere bai, eta bere jardura profesionalaren zatirik handiena zerbitzu enpresetan garatu du eta, zehazki, makinaren alokairuen sektorean.

Francisco Javier Elias jaiotzez bilbotarra da, 52 urte ditu eta esperientzia zabala du GAM Taldearen barruan (Aldaiturriaga Garabiak) hainbat negozio unitate gidatzen, eta Taldearen nazioarteko garapena kudeatzen LATAMen (Txile, Brasil, Peru, Kolonbia eta Panama) eta, ondoren, Taldeak Mexikon duen Filialeko zuzendari nagusi lanetan.

Bere helburua da erakundea gidatzea bere sektoreak dituen erronka berrien aurrean, merkatuko kuota handitzea eta lurralde gehiagora hedatzea jomuga izanik, Bezeroa, Zerbitzuaren Kalitatea eta Etengabeko Hobekuntza oinarritzat hartuta.

ULMA Orga Jasotzaileetan urriaren 13an sartu bada ere, hilabete batzuetan kargua utziko duen gerente Angel Sanchezen laguntza eta aholkularitza edukiko du, zeinak abenduaren 31n erretiroa hartzean karguaren lekukoa utziko baitu.





ULMA AGRICOLA

Mundu osoko azoketan

ULMA Agricolak nekazaritzaren sektoreko azoken eta topaketen aldeko apustua egiten jarraitzen du, nazioartekotzeko eta munduko merkatuan duen lidergoa indartzeko estrategiaren parte gisa.

2016. urte honetan, tokiko nahiz nazioarteko azoka egutegi zabala eduki du; horien artean aipagarri: Zaragozako FIMA, Amsterdameko GREENTECH; Madrilgo FRUIT ATTRACTION; Mexikoko EXPO AGROALIMENTARIA eta Turkiako GROWTECH EURASIA. Holaxe berretsi du ULMA Agricolak enpresa moduan daukan sendotasuna eta internazionalizazioaren alde egiten ari den apustua, bezeroengandik eta amaierako erabiltzaileengandik hurbil egoteko daukan gogo etengabeaz gainera.

ULMA Agricolak aurkeztutako produktuen artean, bereziki aipagarria da Lotu brida. Brida berri honek ULMA Agricolaren berotegiaren egungo burua ordezkatzeko du eta pieza gakoa bihurtuko da erretenaren tortzioari

erresistentzia handiagoa emateko, bai eta erretenaren, buruaren eta zutabearen arteko loturari sendotasun handiagoa emateko ere, garaieran doikuntzak egiteko eta muntaketa errazteko aukera emateaz gainera.

Berrikuntza handia izango da ULMA Agricolaren berotegiaren egituretarako, zeren eta produktu bakar batekin eraginkortasunez beteko baitira orain arte elementu ugari eta erreferentzia desberdinak eskatzen zituzten funtzioak. Horren guztiaren ondorioz, sinplifikatu egiten da ULMA Agricolak bere produktuen zorroan egun eskaintzen dituen multikapera motako berotegi guztien muntaketa nahiz produkzio prozesua eta logistika. Hala, produktu eta zerbitzu hobeak eman ahal zaizkie bezeroei.

Halako ekitaldiek, soluzio eta zerbitzuen eskaintza zabala erakusteko balio izateaz gain, bezeroaren eta azken erabiltzailearen harremana eta etengabeko hurbilpena indartzeko ere balio dute.



ULMA HANDLING SYSTEMS

BRIDOR kontrolpeko tenperaturako automatizazio logistikora batu da (-20°C)

Okintzan, opilgintzan eta pastelgintzan diharduen Bridor enpresa frantziarrak ULMA Handling Systemsen jarri du konfiantza, bere instalazioan logistika sistema automatizatu oso bat garatzeko. Automatizazio proiektuari ekiteko, helburu hau izan dute bultzagarri: produktibitatea hobetzea, eraginkortasuna areagotzea eta, trazabilitatea behar bezala kudeatuz, materiala hobeto kontrolatzea.

ULMA Handling Systemsek garatuko duen proiektua, berez, Bridorren eskariak prestatuko dituen biltegiatze sistema automatiko zentral batean ardatzuko da.

Bridorreko instalazioa -20°C-ko tenperaturara dagoen biltegi errobotizatu batek osatzen du. Bertan, 19.000 paletetik gorako edukiera daukaten 8 transjasogailuko (unit load) ekipoa dago. Gainera, produkzio arloa eta biltegi automatikoa STV's Sorting Transfer Vehicles bidez (garraio sistema adimenduna) komunikatuta egongo dira, eta horiek kontrolpeko tenperaturan jardungo dute 3° eta 5°C bitartean. Proiektuan, bidalketa egiteko 6 iteera postu ere sartuko dira, zeinak -20°C-ko tenperaturan egongo baitira.



ULMA CONVEYOR COMPONENTS

Ikatz eta burdin mineraleko terminal proiektua Kroazian

Kroaziako ingeniariatza batek kontratua esleitu dio ULMA Conveyor Componentsi, Pločeko (Kroazia) handizkako terminal berria arrabolez eta euskarriz hornitzeko. Portua Neretva ibaiaren bokaletik gertu dago, Itsaso Adriatikoaren kostaldean. Terminalak badauka trenbide bat meategiak, siderurgia plantak eta Bosnia eta Hertzegovinako beste instalazio industrial garrantzitsu batzuk lotzen dituena. Kroaziako bigarren karga-porturik handiena da, Rijekako Portuaren ondoren, eta 4,5 milioi tonako karga ahalmena dauka.

Proiektuaren barruan honako hauek sartzen dira: orduko 4.000 tonarainoko ahalmena daukaten garraiagailu berriak eraikitzea, barkuak kargatu eta deskargatzeko makinak, trenak kargatzeko sistemak eta terminal berria kontrolatzeko sistemak, burdin minerala eta ikatza maneiatzeko.

Terminal berriak 30 milioi €-ko inbertsioa ekarriko du eta 2017aren hasieran egongo da jardunean.

ULMA CONSTRUCTION

Soluzio berritzaileak abangoardiako arkitekturan

Fondazione Prada Museoak, zeina Rem Koolhaasarkitekuak diseinatutakoa baita, gune bakarrean batu nahi izan ditu etengabe interakzioan dauden bi kontzeptu: **jada existitzen den arkitektura eta abangoardiako arkitektura.**

XX. mendearen hasierako industrialde zahar batean kokatuta dago, Milanen, eta elkartu ditu jatorrizko zazpi eraikinak hiru eraikin berri hauekin: Podiuma, Zinema eta Dorrea.

Dorreak 66m-ko altuera du eta 18x35m oinplanoan; bederatzi solairu ditu, eta solairu guztiak desberdinak dira, bai altuerari dagokionez, bai geometriari dagokionez, eta, hori dela eta, balkoi jarraitu luzeak eraten dituzte.

Eraikinaren solairuak ohikoak edo estandarrek ez direnez, ULMAko lantaldeak edozein forma eta neurritara egokitu daitekeen soluzio berezia planteatu du kasu honen enkofratu eta apeorako ENKOFORM VMK soluzioaren 2.000m² inguru hormetarako eta 1.200m² lauzetarako, 2 solairu bakoitzeko. Horiekin erantzun zaie arkitektoak diseinatutako geometria eta eruedei.

Solairu bakoitzaren berezitasuna dela eta, beharrezkoa izan zen MK zertxa eta BRIO sistema norabide anitzekoa konbinatzea, izan ere, konbinazio horrekin apeoa egin zen horman batera zulorik egin gabe, diseinuaren gomendioei jarraituta.

Hormigoi zuriaren akabera baldintzak oso zorrotzak izan ziren, izan ere, hormigoiz eta marmol hautsez egindako nahasketa oso biguna erabili baita lehen aldiz. Lanek 18 hilabete iraun zuten eta, eraikinaren berezitasunak direla eta, obran eskaintako laguntza dinamikoa eta etengabea izan zen denbora horretan guztian.



ULMA TALDEA

ULMA Taldeak ikus-entzunezko 4 pieza berri merkaturatu ditu



Bere komunikazio estrategiaren barruan, ULMA Taldeak ikus-entzunezko lau pieza berri merkaturatu ditu. Hori hala, argi gelditu da ULMAk ikus-entzunezko lengoaiaren alde egin duen apustua mundu digitalaren testuingurura egokitzeko. Bideo guztiak Youtuben daude eskuragarri. Lehenengo bideoa "ULMA Taldeko beste talentuak" atalekoa da. Protagonista Jon Jimenez da, ULMA Orga Jasotzaileetan dabilena. Sareratu den bigarren pieza ULMAren bideo soziala da, "ULMA gara" kanpainari amaiera bikaina ematen diona. Hirugarren bideoan, "Bidegorriak Euskararentzat, 2016" ekintzari erreparoa egiten zaio, eguneko unerik dibertigarrienak erakutsiz. Azken bideoa drone bidez grabatuta dago eta ULMAko eraikinak erakusten dira bertan.

ULMA PACKAGING

Webguneko atal berria, automatizazio prozesuetako kasu arrakastatsuekin



ULMA Packagingek atal berri bat argitaratu du bere webgune korporatiboan, automatizazio proiektuetan azken aldia egin diren kasu arrakastatsuek jasotzeko. Artikulu horietan modu laburrean jasotzen da ULMA Packagingek dituen automatizazio erronken zailtasuna eta nola erantzuten dion zailtasun horri kasu bakoitzean, modu espezifikoan. Bezero bakoitzaren premia zehatzak aztertuz, ULMA Packaging Automazionek produktuak elikatzeko eta manipulatzeko sistemak, erretiluen eta kutxen logistika eta kutxatan sartzeko zelulak diseinatu eta fabrikatzen ditu, bai eta bukaeran paletetan jartzeko sistemak ere. Atala handitzen joango da UPA garatzen ari den proiektuekin batera, bezeroentzat oso interesgarriak izango direla uste ditugun edukiak eskaintzeko.

ULMA CONVEYOR COMPONENTS

Handizkakoak Manipulatzeko Teknologia buruzko 21. Kongresua

Iragan urriaren 12an eta 13an, Garnichen (Munich), Handizkakoak Manipulatzeko Teknologia buruzko 21. Kongresua egin zen (21st Expert Meeting for Bulk Handling Technology).

Materialaren handizkako manipulazioan aditu direnek urtero egiten duten kongresu bat da, non, bai enpresek bai unibertsitateek, garatu berri diren berritasun, azterlan, proiektu eta aurrerapen teknologikoak erakusten dituzten. 300 pertsona baino gehiago egon ziren; denak ere arloarekin loturiko sektoreetakoak: meatzaritza, ingeniartzak, garraiagailuen eta conveyorretarako hornidura industrialen (ordezko piezak) fabrikatzaileak.

ULMA Conveyor Components GmbH-k bai kongresuan bai kongresuari lotutako erakusketan parte hartu zuen. ULMAk, bere standean, handizkakoak garraiatzeko ahalmen handia daukaten conveyorrrak ekipatzeko arrabolei aplikatzen zaizkien soluzioak erakutsi zituen.

Bertaratutako enpresa eta erantzuna oso positiboak izan ziren. Adituen artean kontaktu asko eta asko egon zen eta espero izatekoa da, horren ondorioz, ULMA Conveyor Componentsek Alemaniako merkatu zorrotzean duen posizioa nabarmen hobetzea.



ULMA CONSTRUCTION

Ezagutu itzazu ULMA Construction proiektuaren aurpegiak bideo korporatibo berrian

Bideo hau ULMA Constructionen komunikazio euskarriak eguneratzeko beste urrats bat da, Construction Book-aren sustapenaren ondoren. Euskarri horiekin, ULMAren nortasuna, balioak eta lan egiteko modua transmititu nahi izan dira, modu audiobisual eta grafikoan.

Langileen eta bezeroen testigantzen bitartez, ULMAren dimentsio enpresariala modu audiobisualean aurkezteaz gain, garrantzitsuagoa den alderdi humanoa ere erakusten da. ULMA ezberdintzen duen ezaugarri nagusia jarri nahi izan da balioan: ULMA Construction osatzen duen jendearen inplikazioa, bezeroari zerbitzu hurbilagoa eta azkarragoa emateko.

Enpresaren nazioarteko dimentsioa, I+G propio baten aldeko apustua, kontrastatutako logistikarako gaitasuna, prozesu osoan zehar bezeroaren ondoan egotea eta edozein proiektu egiteko aukera izatea dira ULMA Construction enpresa gisa definitzen duten ezaugarriak.

Bideo honek ULMA Constructionen eguneroko errealitatea islatzen du, enpresak munduan zehar dituen pertsonen, langileen eta bezeroen eskutik. Beraien aurpegiak ULMA Construction proiektuaren baitan dagoena azaltzen dute: bezeroaren proiektuan integratu eta soluzio berritzaileak, seguruak eta batez ere efizienteak eskaintzeko gaitasuna duten pertsonak.

ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

ULMA Architectural Solutionsek bere nazioartekotze prozesua sendotu du Latinoamerikan, EXPOCAMACOL eta EXPO CIHAC azoketan parte hartuz

ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONSEK HORMIGOI POLIMEROZKO BERE DRAINATZE SISTEMAK AURKEZTU DITU KOLONBIAKO EXPOCAMACOL ETA MEXIKOKO EXPO CIHAC AZOKETAN.

ExpoCAMACOL azokak teknologia, jasagarritasuna eta eraikuntza batzen ditu eta, ondorioz, eraikuntzaren ekoizpen katearekin zerikusia duten jardura guztien sektore enpresariala eta profesionala biltzen ditu.

Mexikoko EXPO CIHAC azokari dagokionez, ULMAk laugarrenez hartu du parte bertan.

Bi azoketan erakutsi beharreko produktu izarra kanal trinko berria izan da, osorik KOMPAQDRAIN hormigo polimeroan egindakoa: V motako sekzioa duen

MAXFLOW sistema abangoardistarekin, kanalari drainatze eta auto-garriketa ahalmen handiagoa eskainiz. Ezaugarri horiek bakarrik egiten dute merkatuan.

Bai Europako merkatuak bai Latinoamerikakoak oso positiboki jaso du garapen tekniko berri hau, zeinak dagoeneko zabala den ULMA drainatze soluzioen gama osatzen duen.



ULMA AGRICOLA

ULMA berotegiak Polinesia Frantsesean

ULMA Agricolak oraintsu amaitu du barazkiak landatzeko hainbat berotegi naberen instalazioa Polinesia Frantseseko irletako batean.

Badira bi gauza irlaren ekonomia ezaugarritzen dutenak: hirugarren sektorearen nagusitasuna eta jardura ez-komertzialen garrantzia. Hala ere, irlako jardura ekonomikoa oso urrun dago bi sektore horietara mugatzetik, izan ere, nekazaritza produkzioak eta industriak ere presentzia eta inpaktu handia daukate zenbait irlatako ekonomian.

Irlako klima tropikal motakoa da, beroa eta hezea urte guztian. Egunen eta gauen iraupena nabarmenki konstantea da urte guztian, urtaroa gorabehera.

Ezaugarri horiek kontuan harturik, inguruneke klimatologiara nahiz tomatearen eta barruan egingo diren



tomate landaretxoen beharretara egokitzu diseinatu du proiektua ULMA Agricolak.

Beroan galbanizatutako altzairuz babestu da egitura, eta aluminiozko profilak instalatu dira, gazitasun maila altuko lekuetan portaera hobea izaten dute eta.

Bestalde, berotegietan superzenit motako aireztapen sistemak jarri dira. Aireztapen mota hau oso gomendagarria da berotegiaren goialdean metatzen den aire beroa modu eraginkorrean berritzeko.

Gainera, itzala emateko pantaila bat ere badauka. Pantailak landareak babesten laguntzen du, berotegi barruan argitasuna oso handia denean. Ekipamendu biok automatismo bati lotuta daude eta, sensore eta kontsigna egokien bidez, mekanismoei automatikoki eragiten zaie, kalitatezko laboreak produzitzeko girorik onena izateko.

ULMA PIPING

Emaria kontrolatzeko brida zulodunak SHELLen

ULMA Piping homologatu egin da SHELL petrolio konpainian Nipplea soldatuta daramaten brida zulodunekin. Hidrokarburu enpresa angloholandarra petrolioaren sektoreko lau handien arteko bat da, BP, ExxonMobil eta Totalekin batera.

Nipplea soldatuta daraman zuloaren bitartez, sekzio erreduktore bidez bereizitako bi gunetan presioa neurtuz kontrolatzen da emaria. Bridei zulo bat egiten zaie. Ondoren Nipple bat soldatzen zaie, eta bertan presioa neurtzeko presostatua instalatzen da. Hodiaren emaria eskuratzeko, Bernoulliren printzipioa aplikatzen da.

Produktu honekin zabaldu egiten da ULMA Pipingek brida estandarren periferian garatzen diharduen produktuen gama, izan ere, Oil & Gas sektorean munduko liderra da.





ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

Fatxada aireztatu eta aurrefabrikatu arkitektonikoen inguruko dosier berriak

ULMA Architectural Solutionsek bi dosier berri merkaturatu berri ditu, estilo modernoago eta minimalistago batekin eta merkaturatu joeretara egokituta.


Aldaketarik drastikoa fatxada aireztatuei buruzkoa izan du, zeren eta, bistakoa den berritze grafikoaz gainera, azken edizioa testura birziklatuko paperez inprimatu baita. Protagonista handiak, izatez, duela gutxiko proiektu

internazionalak dira, non testura eta akabera bereziko irudi xehatu ugari baitago.

Aurrefabrikatu arkitektonikoen inguruko dosierrean, berriz, polimero hormigoizko piezen soluziorik onenak jasotzen dira, hala obra berrirako nola birgaitze lanetarako. Bertan biltzen dira bai pieza estandarrak bai neurria egindako pieza bereziak, proiektu bakoitzaren premiak zein diren.

ULMA CONSTRUCTION

ULMA Constructionek 5.000 jarraitzaile baino gehiago dauka bere LinkedIn kanalean



ULMA Constructionek diseinatutako ekosistema digitalak webgune korporatibo eta tokikoetan nahiz Youtube eta halako plataforma digitaletan argitaratutako edukiak indartu eta sustatzeko balio du. Ekosistema horren barruan, aipatzekoa da LinkedIn sare sozial profesionala.

Elkarrekin erlazionatuta dauden plataforma horietako bakoitzak komunikazio estrategia bakar eta bereizi bati segitzen dio, edukiak komunikabide eta entzuleria bakoitzari egokituz. LinkedIn egunean baino egunean handiagoa da, izan ere, 5.000 jarraitzaileen kopurua gainditu berri du.

Jarraitzaileok portaera aktiboa daukate, eta ULMA Constructionek enkofratze eta aldazio sistemetan plazaratzen dituen soluzio berritzaileei buruz informatuta egoteaz gainera, halako edukiak beren sare profesional propioa osatzen duten erabiltzaile berriekin partekatzen dituzte, preskriptore gisa arituz eta zabalkundea multiplikatuz.

ULMAri garrantzia eta ospea ematen dioten iruzkinak eginez eta ikuspegi kualifikatuak ekarriz aktiboen parte hartzen dutenak, hein handi batean, ULMA Constructioneko bazkide eta lankideak dira –entzuleriaren %2,5–, eta, horiekin batera, obrako gainbegiraleak, banatzaileak eta hainbat eraikuntza proiektutan lankidetzan estuan parte hartu duten bezeroak.

ULMA HANDLING SYSTEMS

Etorkizuna eta joera berriak biltegi automatikoetan: LOGISTICA 4.0rako biltegi automatikoen urrutiko ikuskapena



Etengabeko berrikuntzaren estrategian murgildurik, ULMA Handling Systemsek INDUSTRY 4.0 vrs. LOGÍSTICA 4.0 iraultza berriari ireki dizkio atak. Iraultza hori

etorkizuneko industria izateko etorri da, eta informazioaren teknologiaren (IT) mundu birtualak, makinaren mundu fisikoak eta Internetek bat egiten dute bertan.

Hainbat zentro teknologikorekin lankidetzan, ULMA Handling Systems gaur egun LOGISTICA 4.0 zigilua daramaten hainbat proiektu garatzen ari da buru-belarri, Persona-Makina lankidetzan bidezko inguruko sistemak sortzera zuzenduta, edo analisiak egiteko software bat egitera, biltegi adimendunak sortzen duten datu kopuru eskerga informazio erabilgarri eta baliotsu bihurtzeko, erabaki egokiak hartu ahal izateko. Halako proiektuen garapenari esker denbora errealeko monitorizazioa eta interakzioa egin ahal izango da, eta abantaila nabarmenak lortuko dira prozesu

logistikoen produktibitateari eta efizientziari dagokienez.

“LOGISTICA 4.0 kontzeptuak gure enpresa, enpresa adimendun bihurtzea dakar, hau da, emaitzarik onenak lortzeko funtsezko informazioa kudeatu ahal izatea, horrek zuzenean eragiten baitio bezeroari eskaintzen zaion zerbitzuaren kalitateari”, jakinarazi du ULMA Handling Systemseko berrikuntzako koordinatzailea den Mikel Altunak.

“LOGISTICA 4.0 iraultza, berez, balio katea antolatzeko modu berri gisara etorri da, eta bere helburua da «soluzio intralogistiko - smart warehouse» kopuru handi bat martxan jartzea, prozesu logistikoen beharretara hobeto egokitu ahal izateko eta baliabideak eraginkortasun handiagoz erabiltzeko”, gehitu du Mikelek.

ULMA PIPING

Energiaren sorkuntzan aukera berriak ULMA Pipingentzat

Bere dibertsifikazio prozesuaren barruan, ULMA Pipingi auditoria bat egin zaio saiakuntza ez-suntsitzaileak homologatu eta, hala, GENERAL ELECTRICen energia sorgailuetarako piezak egin ahal izateko.

Homologazio prozesuak bi egun iraun zuen eta, denbora tarte horretan, saiakuntza ez-suntsitzaileak egiteko orduan hornitzaileak (ULMA Piping) nahiz teknikariek zeuzkaten gaitasun teknikoak egiaztatu behar izan zituen bezeroak. Homologazioa bi partetan banatu zen: batetik, dokumentazioa eta, bestetik, saiakuntzak.

Saiakuntzei dagokienez, barne akatsak detektatzeko ultrasoinu bidezko teknikak (UT Test) eta likido fluoreszente bidez gainazaleko akatsak detektatzeko erabiltzen diren aztertu eta homologatu ziren.

Argazkian, alde batetik, Anne Albanese, GENERAL ELECTRICeko homologazio arduraduna eta, bestetik, Jon Ozaeta, ULMA Pipingeko saiakuntza

ez-suntsitzaileetako teknikaria (bai ultrasoinuetan bai likido sarkorretan).

Auditoria honekin, ULMA Pipingek agerian utzi du atzera ere negozio aukera berrien alde egiten duen apustu argia.



ULMA PACKAGING

Minutuko 120 ontziratze egitera iristen diren bi termozigilatzaile modelo berri barazkien eta fruituen sektorerako

ULMA PACKAGINGEK BI TERMOZIGILATZAILE MODELO BERRI GARATU DITU FRUITUAK ETA BARAZKIAK AURREFABRIKATUTAKO ERRETILUETAN ONTZIRATZEKO



TSA 680 P modelo eta TSA 875 P modelo familia berri honen barruan daude. Nahiz eta aurrerapen mailan modelo biak desberdinak izan, beren ezaugarri komunei esker, biak ere termozigilatze makina egoki askoak dira barazkien eta fruituen sektorerako.

UMC (ULMA Motion Control) software berritzailearen bitartez, erretiluen kokapena zehaztasunez kontrolatu eta produkzioa optimizatu egiten da. Hala, minutuko 120 ontziratzerainoko produkzioak lortzen dira, betiere erretilua zer motatakoa den eta zer neurri dituen kontuan hartuz.

Hona hemen familia berri hau ondoen definitzen duten ezaugarrietako batzuk:

- Zigilatze indarra
- Eraikuntza sendoa
- Erabilerraza
- Kostu txikiko mantentze lana
- Moldakorra
- Eraginkortasun energetikoa
- Minutuko 22 zikloraino
- Formatua erraz aldatzen da

TSA 875 P modelo, iragan berri den urriko Fruit Attraction azokan aurkeztu zen, Madrilan, eta interes handia piztu zuen bisitarien artean.

ULMA Taldeko beste talentuak

Taldeko langile eta bazkideek bateratu egiten dituzte beren ibilbide profesionala eta zaletasun zorrotz-zorrotzak; horrela erakusten dute talentuarekin eta esfortzuekin horma guztiak botatzen direla.



Dena da ekitea, eta nork bere jarduera topatzea.



Igeri, lasterka, pedalei emanez. Esfortzua bizi terapia gisa.

Aritz Kortabarria, ULMA Handling Systems

ULMA Handling Systemseko langilea den Aritz Kortabarriak 16 urte daroa triatloia egiten.

Ura, asfaltoa, esfortzua, ihesbidea, kontrola, gogobetetasuna, hobetzea, solbentzia. Itxuraz behintzat elkarrekin inolako konexiorik ez daukaten hitz horien bidez, Aritz Kortabarria, triatloi batean lehiatzen den aldiro, zer eremu semantikotan murgiltzen den deskribatzen da.

Duela 16 urte hasi zen, eta kirol zorrotz honen praktika hain luzaroan dago bere eguneroko bizimoduan txertaturik, ezen bere bizitzan berezkoa den elementu

bihurtu baita.

"Hainbeste urte dira, ze nire bizitzaren parte da. Lanetik, eguneroko estresetik, eguneroko martxatik ihes egiteko modu bat da. Nik ezingo nuke geldu egon lan egin ostean. Nire ihesbidea da", azaldu du orain dela hiru urtetik hona ULMA Handling Systemseko SAP departamentuan diharduen Aritzek.

Bizikletaren mundutik etorrita, ia konturatu barik hasi zen triatloian.

"la gura barik sartu nintzen mundu honetan", gogoratzen du Aritzek. Astean 10 ordu entrenatzen du batez beste. Astelehenetik ostiralera igeri eta lasterka

egiten du, eta asteburuak bizikletan ibiltzeko gordetzen ditu.

Aritzek besakada, pedalkada eta lasterketen bidez marratu duen ibilbideak ohorezko postuetan egoteko balio izan dio nazioko eta nazioarteko triatloietan; gainera, 24 aldiz izan da finisher-a Ironman batean, hau da, denik eta triatloi probarik gogorrean, non ur zabalean 3,8 km egin behar diren igerian, 180 km bizikletaz eta 42,2 km lasterka.

Ironmana, izan ere, gogortasun handiko kirol modalitatea da, eta eskatzen du sasoi bikainean egotea, kirolariak bere gaitasunak zein diren ondo-ondo jakitea

eta triatloilaria, berez dauzkan mugekin tira-biran, bere erresistentziaren aurrez aurre jartzea.

16 urte hauetan, Kortabarriak hainbat txapelketatan parte hartu du Estatu Batuetan, Brasilen, Mexikon, Hungarian, Txekian, Alemanian eta, oraintsu, Munduko Ironman Txapelketan. Munduko txapelketaren hitzordua Hawaii izaten da urtero eta World Triathlon Corporation (WTC) delakoak erregulatutako sailkapen proba gogorak gaintu beharra dago.

Hala ere, Hawaiiiko mundu mailako esperientzia horrek zapora gazi-goza utzi dio Aritzek.

"Ez zen nik espero nuen lasterketa izan. Bero eta hezetasun handia egiten zuen. Hidratazioa muturreraino zaindu beharra dago. Ezin izan nuen nire onena eman. Egunen batean bueltatu egingo naiz arantzatxo hori ateratzera", gehitu du.

Kirol modalitate honek kontrol mental handia eskatzen badu ere, Aritzek oso argi dauka hobby bat baino ez dela beretzat, eguneroko zailtasunetik ihes egiteko erabiltzen duen zaletasun bat, eta ez dela inondik inora ere karga bat, eta triatloian jarraitzeko, funtsezkoena gozatzeari inoiz ez uztea dela: *"argi daukat gozatzeari uzten diodan egunean utzi egingo dudala".*

Aritzek poztasun handienetako bat kirolak eskatzen dion kontzentrazio mentala da, ingurunetik abstraitu eta beste guztia ahaztea, bere gorputzak igortzen dizkion mezuei baino beste ezeri jaramon egin barik. Arnasketa, pultsua, eritimoa...

"Lasterka zoazela, pultsuan kontzentratuta zoaz. Beste dimentsio batean zaude, sentsazio txarrak saihestu nahian. Lasterketa baten giltzarria sentsazio negatibo horiek gaintitzean datza, mugak gaintitzean. Lasterketan zulo psikologiko bat ondo gaintitzeko gauza izan banaiz, pozik, harro eta bakean egongo naiz", arrazoitu du Aritzek.

Proban izandako sentsazioak, Aritzentzat, lortutako emaitza baino askoz ere inportanteagoak badira ere, bere palmaresa aintzat hartzeko modukoa da: iaz hamaikagarren sailkatu zen elite mailan (MB1) Madrilgo KM0 Ironmanean; elite mailako seigarrena izan zen Ribadesellako Half Triatloian, eta elite mailako laugarrena Half Astromad Triatloian.

Kortabarriak kendu egiten die inportantzia bere kirolaren eskakizun zorrotzei, izan ere, konbentziturik dago

triatloiak eragiten dion efektu terapeutikoak baduela nahikoa indar kirola uztea burutik kentzeko.

"Dena da ekitea, eta nork bere jarduera topatzea. Kirol honek nigan duen efektua beste pertsona bati arrantzan joateak eragiten diona izan daiteke", esan du bukatzeko.



Lanetik, eguneroko estresetik, eguneroko martxatik ihes egiteko modu bat da. Nik ezingo nuke geldu egon lan egin ostean



“**ULMA Taldea**
Erreferentea da
MONDRAGON
barruan



“Enpresen lehiakortasunerako faktore gakoa, pertsoneri dagokiena izango da”.

IÑIGO UCÍN. MONDRAGONeko Kontseilu Orokorreko Lehendakaria

“**Zelako gogo aldartea dakar Iñigo Ucinek MONDRAGON Korporazioko Lehendakaritzara?**

Lanerako eta gauzak egiteko gogo handiz nator. Eta bai Zentro Korporatiboan bai Kontseilu Orokorrean eta Batzorde Iraunkorrean inguratzen nauten pertsonengan antzeman dudanagatik, esan dezaket jendea lanerako prest dagoela. Ildo horretan, nabarmendu nahi nuke azken hiru urteak ez direla batera samurrak izan eta joan zen uztaileko Kongresua funtsezkoa izan dela, bertan adostu delako denon artean eraiki gura dugun “Etokizuneko MONDRAGON”.

“**Zein dira datozen urteetan MONDRAGONen bilakaera markatuko duten erronka estrategikoak?**

Ausarkeria da gaurko egunean zenbait urtetako horizontean gerta daitekeenaz berba egitea, zeren eta gaur egungo ziurgabetasuna, hala geopolitika arloan nola ekonomia arloan, ezin baita handiagoa izan. Eta okerrera da onartzen hasia dela egoera honek ez duela labor joko, ezta agertokirik onenean ere.

Haatik, politika sozioenpresarialean dago zehaztuta erronka, hots: “Lortu behar da negozioak posizio lehiakor sostengarrietan oinarrituz garatzea”. Hori

lortzeko, negozio bakoitzean garapen eredu bat egon behar da nahitaez, erronka estrategikoak ezarri eta, hola, lehiarako posizio egokia ahalbidetuko duen dimentsio batera iristeko. Halaber, negozioen kontzentrazioa indartu beharko dugu, produktu-merkatu arloan dugun posizioa hobetuko duten aliantza estrategikoen garapena modu proaktiboan kudeatuz.

“**Lehiakortasuna eta errentagarritasuna; horra hor, Korporazioak jaso behar dituen ikurrak. Zelan lagunduko die MONDRAGONek**

kooperatibei erronka hori lortzen?

Erronka lortzeko estrategia korporatiboak ere zehaztuta daude:

-Konpromiso eta identitate kooperatiboa; sostengarritasunarekin hartutako konpromisoa sendotuz, geure buruarekin zorrotzak eta erantzunkideak izanda, bai lan arloan bai arlo sozietarioan.

-Finantzaketa; behar diren baliabideak eskuratu ahal izateko eta etorkizunera begira negozioen sostengarritasunari eutsiko dion finantza nahiz ondare egitura indartsu bat edukitzeko. Horretarako, finantza iturriak dibertsifikatzeko ahalegina egingo da, eta kooperaziorako barne tresnak eta hirugarrenekin adostutakoak bilatuko dira.

-Enpresa berrikuntza eta sustapena; negozioak etengabe berritzeko eta balio erantsidun enplegua edukiko duten negozio berriak sortzeko.

-Interkooperazioa; kooperatiben arteko eta hirugarrenekiko lankidetzak sistematikoki bilatuz, enpresaren arlo guztietan lehiarako abantailak sortzeko elementua izango delakoan.

-Presentzia globala, merkatu globalizatuan lehiatu ahal izateko.

Hori guztia kontuan hartuta, zentro korporatiboaren Plan Estrategikoa hedatzen ari gara eta, ezin bestela izan, horrek azpimarratu egingo ditu deskribatutako estrategiak. Hala ere, nabarmendu nahi nuke dibisio-proiektuetan biltzen den kooperatiba multzoa ere badela, funtsean, MONDRAGON. Eta ildo horretan, uste dut hemen denok dugula zer egina, eta inplikaturako alde guztien laguntzarik gabe emaitza ez dela guk nahi duguna izango. Azal dezadan hobeto: adibide gisa, interkooperazioa erabili nahi nuke; kontzeptu horrentzat enuntziatu handiak eduki ditzakegu, baina maila desberdinetan inplikaturako dauden erabakitzaileak ez badaude zeregin horri heltzeko prest, kontzeptua enuntziatu hutsean geldituko da, premiazkoa dugun errealitate horretatik oso urrun.

“**Duda barik, gure etorkizuna oso pertsona trebatu eta ondo prestatuei lotuta egongo da, kooperatibak kudeatu ahal izateko. Zure ustez, arlo honetan, Korporazioak Mondragon Unibertsitatearen bidez betetzen duen zeregina funtsezkoa izango da “Etokizuneko MONDRAGON” hori gauzatzeko?**

Berrito nabarmendu nahi nuke kooperatibek, dibisio-proiektuek eta Zentro Korporatiboak osatzen dutela MONDRAGON, eta pertsona trebatuak edukitzearen erronka hori inplikaturako gauden guztiok landu behar dugula batera; Mondragon Unibertsitateak ere bai, jakina. Etorkizunera begira, enpresen lehiakortasunerako faktore gakoa, pertsoneri dagokiena izango da, eta gure unibertsitateak pertsona trebatuen hazitegi izan behar du, behar ere, halakoak beharko ditugulako, bai ikuspegi profesionaletik bai kooperatibotik.

“**Zure ustean, zer rol jokatu beharko luke ULMA Taldeak MONDRAGON Korporazioan?**

ULMA Taldea erreferente bat da MONDRAGON barruan. Taldearen historia, negozioak, dimentsioa, kooperatiba izateko era, eskualde ikuspegia, etab. direla eta, esperientzia berezia dugu ULMA, MONDRAGONen dauzkagun gainerako esperientzia kooperatiboak ere bereziak diren bezala. ULMA Taldearen rola, beste dibisio batzuen bezala, zentzu guztietan ahalik eta ekarpen handiena egitearena izan behar da, azken Kongresuan zehaztu eta onartu dugun “Etokizuneko MONDRAGON” hori errealitate bihurtu dadin.

“**Zer mezu helaraziko zenieke ULMA Taldeko bazkide eta langileei hasi berri den etapa honetan?**

ULMA talde handi bat dela, eta, beste talde handi batzuekin batera, MONDRAGONeko parte dela, eta enpresa arloan erreferentea negozio askotan, baina batez ere munduko erreferentea kooperatibismoan. Esango nieke proiektu

ilusionagarria dugula aurrean. Proiektu honetan, gainera, berezitasunen gainetik, oinarritzko adostasuna dago mantendu nahi ditugun zutabeen inguruan.

Helaraziko nieke merkatuan dagoen ziurgabetasuna gorabehera, eta aurre egin behar ditugun lehiakortasun erronkak gorabehera, MONDRAGON etorkizun oparoko proiektua dela, eta kooperatiba izateko dugun era hau, enpresa egiteko eta gizartea eraikitzeko gure moduarekin bat etortzeaz gain, ezinbesteko palanka lehiakorra izan behar dela.


Adieraziko nieke etorkizuneko bizirauteko gai izango den kooperatibismo lehiakorra lortzea denon zeregina dela, guk kooperatibistok osatzen dugun MONDRAGON honen zeregina, eta lehiarako berezitasun hori modu kooperatiboan txertatu behar diegula gure negozioei.

“**Datozen urteetan MONDRAGONen bilakaera markatu behar duen erronka estrategikoa politika sozioenpresarialean dago zehaztuta, eta hauxe da: “Lortu behar da negozioak posizio lehiakor sostengarrietan oinarrituz garatzea”**

ULMA, Markaren Balioa



Negoio guztiek egindako esfortzuari esker eraiki eta sendotu da ULMA marka, konpromisoz, leialtasunez eta etorkizun ikuspegiz lan egin ondoren.



2014ko uztailaren 8an, Brasil eta Alemaniako selekzioek Munduko Futbol Txapelketako finalerdietako partida jokatu zuten elkarren aurka. Partidarako agertokia Gobernador Magalhães Pinto estadioa izan zen, Brasilgo Belo Horizonte hirian. Mundu guztia dago begira. Dozenaka mila pertsona instalazioen barruan, eta hainbat milioi beren etxeetan. Alabaina, ikusle gehienek ez dakite ikusteko puntuan dauden ikuskizun hori ULMAren laguntzaz eta kolaborazioaz erabat birmoldatu den barruti batean izango dela.

ULMA, gaur egun, jarduera sektore desberdinetan espezializatuta dauden 8 Negoziok osatzen duten enpresa talde bat da. ULMA kapaz da munduko txapelketetarako estadioak eraikitzeko, kapaz da nazioarteko aireportuetako ekipajeak kudeatzeko soluzioak emateko, eta kapaz da emateko, besteak beste, biltegitratzeko logistika, komunikazio azpiegiturak, drainatze sistemak eta fatxada aireztatuak, berotegiak, orga jasotzaileak, ontziratze eta enbalatze ekipamendu eta sistemak, energiaren sektorerako bridak eta fitting-ak, etab.

Baina honaino iristeko, gaur egun daukagun marka hau ondo ezaguna izatera iristeko, ezinbestekoa izan da baterako bide bat egitea, historia bat partekatzea, 80ko hamarkadara atzera jotzen duen orduantxe batu ziren ENARA, ULMA eta OINAKAR kooperatibak eta

“**ULMA marka barne indargarria izan da identitatearentzat, jatorri bateko kide izatearen sentipenarentzat eta balio komun batzuen garapenarentzat**”

eskuzabaltasunez nahiz berrikuntzarako bokazioz beterik dagoen historia bat.

Hasierako batasun horri OÑALAN Taldea izena jarri zitzaion eta geroxeago egungo ULMA marka/logoa sortu zen; horrek ekarri zuen, 1990ean, Identitate eta Irudi Korporatiboaren Proiektua. Aipatzekoa da hastapen hartan bertan ageri dela kooperatiben arteko elkartasunaren lehen erakusgarria; ULMAren alde egin zen Taldearen izen korporatibo gisa eta markaren izen gisa.

Une hartan, 1990ean alegia, Identitate eta Irudi Korporatiboaren Proiektua jarri zen martxan. Proiektuaren funtsa, berez, hau besterik ez zen: ULMA marka beste kooperatibetan inplementatzea eta kooperatiben izen komertzialak batzea, kooperatiba horiek negozio izatera pasatzeko. “*Inplementazio prozesua luzatu egin zen denboran orduko kooperatiba desberdinen unean uneko egoeraren arabera*”, ziurtatu du Carlos Sarabiak, zeina Taldearen Marka eta Komunikazio Arloko arduradun ez ezik koordinatzaile ere izan baitzen Identitate eta Irudi Korporatiboaren Proiektua inplementatu zeneko urte haietan.

ULMA markaren “eraikuntzaren” hasierak bat egiten du 1993an MCCn –gaur egun Mondragon Korporazioa– ez sartzeko hartutako erabakiarekin. “*Erabaki hark inpaktu handia izan zuen ULMAren*



identitate eta irudi korporatiboak – eskualdeko talde gisa– gerora izan zuen indartzean”, ziurtatu du Carlos Sarabiak. “Bultzada garrantzitsua izan zen ULMArentzat. Balio batzuk, baterako bisio bat eta negozioen autonomia zehaztu ziren, baina Talde bakarraren kontzeptuari lotuta betiere”, gogoratzen du Sarabiak.

ULMAko Negozio batzuek 90eko hamarraldian hasitako internazionalizazio prozesuak eta mundu guztiko aktoreekin lehian sartu beharrak berebiziko garrantzia izan zuten marka identitatearen eraikuntza sendotzeko. “Negozio batzuek atzerrira irteten dute eta konturatzen gara markaren aldeko apustua egin behar dugula, ezagutu gaitzaten eta ospea lor dezagun”.

90eko hamarkadaren erdialdera, Taldea oparotasun aldi batean sartu zen, eta oso hazkunde handia izan zuen. Aldi hori baliagarria izan zen gure pertsonak proiektu komun baten inguruan kohesionatzeko. Markaren eraikuntzak barne kolektiboa norabide bakar batean lerrotzeko balio

izan zuen. Konpromisoa, leialtasunez eta etorkizunerako ikuspegiz lan egin zen. Marka batzeko prozesu osoa mesedegarria izan da negozio guztientzat.

Iritzi berekoa da ULMA Constructionekoa Ander Olló: “ULMA marka barne indargarria izan da identitatearentzat, jatorri bateko kide izatearen sentipenarentzat eta balio komun garapenarentzat”.

Anderren ustez, markaren goardasolpean lan egitea, gainera, jarduera komertziala dinamizatzen duen elementu bat da: “Negozio bakoitzean ere indartu egiten gaitu, oso tamaina handia duen Talde bateko kideetasuna ere adierazten duelako”.

Baina helburuak konkistatzeko tresna izateaz gain, **ULMA marka, zalantzararik, bere ingurune hurbilenean erroturik dagoen balio bat da, bere sustraietara ondo lotua eta komunitatean aintzat hartua.** “Oñatiko izatea plus bat izan da prozesuan, jendeak islatuta ikusi duelako bere burua. ULMAk 55 urtetik gora

darama Oñatin eta identifikazio bat egon da komunitatearekin”.

Marka, elementu egituratzailea ez ezik, aktibo ekonomiko bat ere bada. “Aktibo inportantea da, denon artean, etorkizun ikuspegiari esker, lortu duguna. Negozio guztiek norabide bakar bat hartu eta, horri esker, batasuna behin betikoa izan da”, ziurtatu du Carlos Sarabiak.

“**Marka bakarraren inplementazio prozesua luzatu egin zen denboran, kooperatiba desberdinen unean uneko egoeraren arabera**”

Begirada bat etorkizunera

Etorkizuneko erronkei behar bezala aurre egingo bazaie, birdimentsionatu egin beharko da marka, komunikazio digitalaren eskakizunetara doitzeko eta ULMAren bokazio soziala transmititzeko. Hori guztia, negozioen mesedetan eta Negozioen indargarri.

Hala ere, denborak eboluzionatuz doaz. Egunero ikusten dugun zerbait da: informazioaren teknologien sarpenarekin aldatzen ari dira enpresa inguruneak. Komunikazioan ere bistan dago iraultza digitala aldatzen ari dela pertsonen arteko harremanak. Aldaketa testuinguru honetan, funtsezkoa da etorkizunera begira jartzea.

“ULMA marka gogoeta prozesu baten beharrean dago, bai erabili behar dituen kanaletan, bai mahai gainean jarri behar dituen balioetan, Negozioen premiekin bat etorriko den posizioa eta ospea lortu nahi baditu behintzat. Ordua da planteatzeko zer nahi dugun gure marka izatea, eta zertarako”, zehaztu du Carlos Sarabiak. Bere iritziz, ezinbestekoa izango da bide horri ekitea ULMAk behar duen errekonozimendu eta ospe maila izatera iritsiko bagara.

“Desberdintze estrategia orok eskatzen du, nahitaez, marka lantzea. Babes dezagun gure marka, eta izan gaitezen proaktiboak. Gure marka, izatez, arrakasta kasu bat da. Hor kanpoan mundua oso agudo dabil mugitzen eta gu ezin gara geldirik egon”. Ander Olló ere funtsezkoa deritzo biharko egunerako prestatzeari:

“**Etorkizunera begiratu behar dugu, eta ULMA izeneko proiektu komun honetako pertsona guztiok gogoz eta grinaz beteko gaituzten erabaki egokiak hartu**”

“Sektore desberdinetan lan egiten dugu, baina marka komun bat dugu, balio batzuekin lotu dugun marka komun bat. Gaur egun dugun erronka handia marka hori Taldeko negozio guztietan modu koherentean garatzea da”.

Markari bi erronka berri datozkio: batetik, marka digitalizatzea, garai desberdinetara egokitzuz joateko, eta, bestetik, bere balio soziala sendotzea. “Bi ardatz horiek dira giltzarri”, baieztatu du Carlos Sarabiak. “Arlo soziala eta arlo digitala. Gure geneak sozialak dira, gure oinarriak sozialak dira. Guk ez dugu erantzukizun sozialaz berba egin beharrik, arlo sozialean arduratsua den Talde bat osatzen dugulako. Oraintxe bertan, gure marka proiektua dimentsionatzea dugu erronka. Konplikatu da, baina, aldi berean, oso ilusionagarria. Ibiltzeko dugun bidea zoragarria izango da”, gehitu du Carlos Sarabiak.

“Etorkizunera begiratu behar dugu, eta ULMA izeneko proiektu komun honetako pertsona guztiok gogoz eta grinaz beteko gaituzten erabaki egokiak hartu”, esan dute Carlosek eta Anderrek bukatzeko.

Unibertsitatea-enpresa harremanak

Mondragon Unibertsitateko hiru dekanorengana jo dugu, unibertsitatea-enpresa harremanaren egungo egoerari zer irizten dioten jakin nahian. Horiekin batera, ULMA Taldeko lehendakariak bere ikuspegia eman digu enpresa kooperatibotik.

>> **L.B.: LANDER BELOKI**
MU Enpresagintzako dekanoa

>> **C.G.: CARLOS GARCÍA**
MPEGko zuzendaria (MUko Goi Eskola Politeknikoa)

>> **B.P.: BEGOÑA PEDROSA**
MU Huheziko dekanoa

>> **R.G.: RAUL GARCIA**
ULMA Taldeko lehendakaria

« Zer diagnostiko egiten duzue gaur egungo MU-ENPRESA harremanaz? Zuen ustez, badago indartu beharreko konturen bat? Norantz doaz unibertsitatea-enpresa harremanak gure ingurunean? Ondo posizionatuta gaude?

L.B.: Unibertsitatea-enpresa harremana elementu nuklearra da Mondragon Unibertsitatearen sortze egunetik bertatik. Mondragon Unibertsitatea sortu zen eskualde baten prestakuntza beharrei erantzuteko, eta baita eskualde horretako enpresen beharrei erantzuteko ere. Unibertsitatearen historia eta eskualdearen nahiz bertako enpresen garapena beti joan dira paraleloan. Jarduera unibertsitario guztia egitate horri lotuta egon dadin ahalegintzen gara. Enpresekin dauzkagun harremanak islatzen dira programetan, edukietan, ikerketan, transferentzian, unibertsitatean lantzen denaren garapenean.

Gure erronkarik behinena, enpresei lagun egitea eta haien erronken mailan egotea da. Gure inguruan oso proiektu inportanteak dauzkaten enpresak daude, nazioartean lehiatzen ari direnak, arlo teknologikoan, pertsonen garapenean, talentuan eta beste arlo batzuetan erronka handiei heldu dietenak. Gure inguruan oso anbizio handiko erronkak dauzkaten enpresak daude, eta erronka horiek gureganantz datoz. Egoera honi dagokion

maila eman behar diogu. Unibertsitatean, behar bezalako dinamikak, metodologiak eta, azken batean, enpresa horietan beren ekarria egingo duten ikasleak eduki behar ditugu. Benetako erronka enpresari ekarpena egiten jarraitzea da, jakitea nola lagun egin enpresari lehiakortasunean.

C.G.: Landerren azalpenaren bukaerarekin lotuta, esan beharra dago hiru fakultateek eta MUK –osoki hartuta– plan estrategikoari amaiera eman berri diogula. Plan horren lanketan, enpresekin izan ditugun kontrasteen ondorioz, bi mezu konkretu osatu dira, egiten ez ditugun eta egin beharrekoak diren gauzen gainekoak. Enpresen arabera, epe ertain eta luzera begira, langileak trebatzen jarraitu beharra dago, eta juxtu oraintxe trebakuntza teknologikorako beharra dago, zehatz esanda, eskualde honetako kooperatiben zati handi batean. Eta kontu horretan, guk malguak eta irudimentsuak izan behar dugu, lanaldi osoan dabilzan langileen lan jarduna bateragarria izan dadin prestakuntza arautuarekin. Eta behar horretan, ez gara oso ondo erantzuten ari.

Bigarrenik, detektatu dugu arlo teknologikoan proaktiboagoak izan beharko dugula enpresen beharretara egokituko bagara. Gaur egun enpresekin dugun harremana oso ona da; horren erakusgarri: praktikak, gradu amaierako lanak, master amaierak, etengabe



prestakuntzako jarduerak, kontratupeko ikerketaproiektuak, edo transferentziakoak, zerbitzuen prestaziokoak, etab., baina harreman "operatiboak" dira denak ere.

Nire ustez, beste pauso bat egin behar dugu enpresen behar teknologikoei aurre hartzeko eta proaktiboagoak izateko. Horretarako, enpresekin komunikatzeko bideak bilatu behar ditugu, elkartzeko foroak sortu eta aliantza estrategikoak ezarri, esan diezaguten zer irizten dieten guk martxan jarri nahi ditugun egitasmo berriei; adierazi diezaguten zein diren bete barik dauzkaten beharrak eta, oro har, gure ekintzak orienta ditzaten. Eta horretarako kooperatiben konplizitatea behar dugu.



>> **B.P.: BEGOÑA PEDROSA**

B.P.: Azaldu den ideiarenekin batekin lotuta, esango nuke gure ekarpena egiten jarraitu behar dugula, behar teknologikoei aurre hartuz, baina zaila da. Gaur egun ezinezkoa da ia, azpiraturik gaude zeharo, ez dakigu zer etorriko den arlo teknologikotik.

Hasierako prestakuntzatik abiatuz, nik uste dut unibertsitateak egin dezakeen gauza bat zera dela: ikasleak horren ukigarriak ez diren gaietan trebatu, hori ere oso beharrezkoa izango da eta. Kompetentzia sozialez ari naiz, gure curriculumek, oso hermetikoak izaki, horrenbeste garatzen ez dituzten gauzez. Askotan, burokraziaren aitzakian babesten gara. Curriculum mugak asko markatzen dizkiguten prozesuak bete behar izaten ditugu, baina badaukagu tarterik etorkizuneko profesionalek gurekin ematen duten denborari etekin handiagoa ateratzeko. Eta denbora hori luzea izaten da: lau eta zortzi urte bitartean, doktoretza ikasketak kontuan hartuz gero. Nago gai hau ez dugula behar bezain serio hartzen. Oso zaila da aurre hartzea.

Etorkizunean dena ez da digitala izango eta gogoeta sakona egin beharko dugu, horregatik ari naiz gai sozialak ere aipatzen. Gai sozialean, transferentzia ez dago guztiz ustiatuta: komunikazioa, elkarguneak, elkar hobeto ezagutu... Ondo posizionatuta gaude, baina askoz ere gehiago egin daiteke.

Mondragon Unibertsitatea sortu zen eskualde baten prestakuntza beharrei erantzuteko, eta baita eskualde horretako enpresen beharrei erantzuteko ere

>> **L.B.**

R.G.: Nire ustez, diagnostikoa zuzena da. Dagoen kolaborazioa aintzat hartzen da, baloratzen da, baina bide luzea dago egiteko oraindik. Harantzago joateko behar diren engranajeak zehaztu beharko liriateke, enpresetako eta unibertsitateko ordezkariak foro batzuk eduki ahal izateko eta, sistema gisa, eseri eta prestakuntzaz nahiz garapenez berba egiteko, hori guztia prestakuntza saioen bidez, produktuak eta teknologiak garatzeko proiektuen bidez, kudeaketarako eta pertsonak garatzeko proiektuen bidez eta abarren bidez gauzatzeko. Horretarako, gure beharrak eta denok esku artean darabiltzagun gaiak identifikatzeko sistematika bat erabili beharko genuke, hortik abiatu eta proiektuak martxan jartzeko. Ideiak eta proiektuak sor daitezten, kanalak eta mekanismoak behar dira.

«Gure etorkizuna oso pertsona trebatu eta ondo prestatuei lotuta egongo da, kooperatibak kudeatu ahal izateko. Zuen ustez, zer rol bete behar du Mondragon Unibertsitateak gai honetan? Benetan uste duzue epe laburrean pertsona kualifikatuen defizit handia egongo dela eta horrek eragina izango duela enpresetan?

C.G.: Duda barik. Enpresen artean, konplikatzen ari da talentua erakartzeko borroka. Lehia gero eta ankerragoa da.

Baina ez hori bakarrik, enpresek lehendik dauzkaten langileak prestatu behar dituzte batetik, eta behar berrietara etengabe egokitzen diren edukiak behar dituzte bestetik. Eta sarritan, behar duten espezializazio maila hain izaten da altua, ze prestakuntza tradizioaletik ezin da erantzunik eman eta prestakuntza mekanismo berriak jarri behar dira martxan. Hori guztia dela eta, enpresaren eta unibertsitatearen arteko komunikazioak oso arina izan behar du; horregatik egin dugu gure aliatu estrategikoekin elkartzeko foroak martxan jartzeko apustua.

MUK konpromisoa hartu du halako harremanetan %100 fidagarria izateko. MUKoon indargunerik onena epe luzerako jarduketetan dago. Kontuan izan behar da prestakuntzak, oro har, denbora eskatzen duela; hori dela eta, ikuspuntu horretatik begirata, oso inertzialak gara eta jarduketa nahiz aliantza egonkorra behar ditugu.

Aliantzen arrakastarako giltzarrietako bat, aliantzok egonkortasuna, ordena eta sistematika bat edukitzea da; azken batean, auresangarriak izatea, bestela eguneroko martxak jan egiten gaitu.

B.P.: Izan ere, hori da gakoetako bat. Laz, plan estrategikoa lantzen genbiltzala, horixe izan zen, hain zuzen, interes taldeek esaten zigutena: zuetaz fidatzen gara, baina egunerokoak jan egiten gaitu. Enpresarekin horixe gertatzen zaigu; pentsatzen dugu: hortxe dago, ondo zainduta, baina beharrei arinago erantzutea nekeza egiten zaigu.



>> **L.B.:** LANDER BELOKI

L.B.: Prestakuntzaren gaiari dagokionez, enpresa ondo-ondo ezagutzea komeni zaigu; enpresa non dagoen sartuta jakin behar dugu, hala nola zerk kezkatzen duen, zer duen esku artean, zer asmo daukan. Hori ez da bisitaldi batean egiten; hori harreman bat da, non konfiantza sortuz eta sortuz doan. Ezagutza horretatik abiatuta ekarpenak egiteko moduan egon gaitzeko, batzuetan egin ohi den bereizketa mugatua egin barik, alegia, ekarpena prestakuntzatik edo proiektuetatik eginda, elementu komun asko dago eta.

Gai konkretuak identifikatzen ditugu, eta enpresa bakoitzean ekarpenak egiten. Gai edo erronka konkretu horien inguruan orientatzen ditugu unibertsitatean dauzkagun tresna desberdinak, hala nola gradu amaierako lanak, master amaierako lanak, praktikak, txandakatzeak, enpresak parte hartzeko moduko programetako moduluak, doktoretza programak, ikerketa proiektuak, aurreko guztia konbinatzeko ezin konta ahala aukerarekin; hau da, ikasleentzako ikaskuntza tresna akademikoak eta enprekin epe luzeko lankidetzan partekatzen ditugun erronkak lerrotzeko ditugu.

R.G.: Mundu honetan, gainera, gero eta ziurgabetasun gehiago eta ziurtasun

gutxiago dago, eta harreman sendo bat badago –kasu honetan unibertsitate arloarekin– kapazak izango gara, enpresa gisa, hobeto erantzuteko.

Prestakuntzaren eta proiektuaren artean bereizketa egiteaz baina, nik erronka partekatuz hitz egingo nuke.

C.G.: Bai, ados. Prestakuntza giltzarri izango da, mix on bat behar dugu prestakuntza generikoaren eta prestakuntza espezializatuaren artean, izan ere, alde batetik, eskatzen zaizkigu era guztietako egoera aldakorretara egokitzen jakingo duten lur orotako profesionalak, ezagutza teknologikoez gainera kompetentzia transbertsalak landu dituztenak, komunikatzaile onak direnak, talde lanean jarduten dakitenak, sintesirako gaitasuna eta, jakina, nazioarteko profila daukatenak, etab. Eta bestetik, teknologia jakin batzuetarako oso espezializazio konkretuak eskatzen zaizkigu, enpresa askok ia erabat ad hoc diren profilak nahi dituztelako beren beharrei erantzuteko.

Erronka, berez, ikaskuntza prozesuen diseinuan datza, oinarriko lur orotako profila eta zenbait gaitan goi mailako espezializazioa konbinatu ahal izatean.

Prestakuntza giltzarri izango da, mix on bat behar dugu prestakuntza generikoaren eta prestakuntza espezializatuaren artean

>> **C.G.**

L.B.: Euskal batxilerrek gehien eskatzen dituzten 10 karreretatik 5 MUn ematen dira, eta 5 horietatik 3 ingeniariak direla uste dut.

C.G.: Hala ere, ez da nahikoa. Bokazio teknikoak falta dira. Duda barik, erakargarriagoak izan behar dugu 15 eta 20 urte bitarteko gazteentzat, hala

beharko dugulako gure enpresek, eta, azken finean, gure gizarteak hobera egingo badute.

B.P.: Baina, erakargarriak al dira gaur egun planteatzen ditugun bezala planteatuta? Horixe da funtsezko galdera. Ez da EAEen bakarrik gertatzen, mundu osoan baizik, hor daude OCDEren datuak, karrera teknikoak, gaur egun planteatzen diren bezala, ez dira erakargarriak.

C.G.: Tira, mitoren bat apurtu behar dugu hemen. Argi dago ez dugula ateratzen enpresak behar adina ingeniari. 2012an titulua eskuratu zutenei buruz Lankidek egindako azken inkestaren arabera, MUK ingeniarien langabezia tasa %7koa da; Euskadiko unibertsitateen batez bestekoa, berriz, %16,5ekoa da. Egia da gehiago behar ditugula, gure egitura industrialak ikaragarri handia delako eta egiten dugun guztia gutxi izango delako.

Bistan dago kontua dela erakargarriak izatea eta ingeniariaren alde atsegina erakustea.

Badago mito bat ingeniariaren karrera gaitza dela dioena, eta ni ez nator inondik inora ere bat baieztapen horrekin. Ingeniariaren karrera egiteko ez da aparteko buru argitasunik eduki behar, ez neurrigabeko esfortzurik egin behar.

B.P.: Nik ez dut dilema ingeniariaren planteatzen, aurreko etapetan baizik. Ikerketa duguna beheko mailetatik dator.

Inoiz eduki ez ditugun eskaerak edukitzen ari gara bai derrigorrezko bigarren hezkuntzan bai batxilergoan; prozesuak asko ari dira mugitzen eta aldatzen.

Haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan berrikuntza asko dago; ez ordea bigarren hezkuntzan eta batxilergoan, eta etapa horietan ikusten du jendeak zer gustatzen zaion, zer bide hartu... Hor ez dago hainbesteko berrikuntzarik metodologietan, eta gazteak lotu egin behar dira... Ez naiz ingeniariaren ari, beharago dauden mailak baizik.



>> **C.G.:** CARLOS GARCÍA

C.G.: Horixe da, izan ere, hautua ez da 18 urterekin unibertsitatean sartzerakoan egiten; hautua 16 urterekin egiten da, batxilergoan. Hor hautatzen dute gazteek.

Eta badago beste arrazoi bat azaltzen duena zergatik daukagun horren ingeniari gutxi: uko egin diogulako publikoaren ia erdiari, alegia, neskek osatutako publikoari. MUn, ingeniariaren ikasleek %30 dira neskek, eta zifra hori nahiko ona da (estatu osoan, batez besteko hori %20 inguruan ibiliko da), baina ez da aski. Ingeniariaren karrerak mutilentzako karrerak direlako mito horrek min handia egin dio, eta egiten dio, ez bakarrik gure gizarteari, baita Europako eta mendebaldeko gizarte osoari ere.

Ez gara gai izan neskentzat erakargarri izateko eta ez daukat hori esplikatzeaz azalpen arrazionalik, zeren neska ingeniariak mutilak bezain onak edo hobekak baitira. Are gehiago, eta esan behar daiteke: ingeniariaren titulazioetan ez da soldata alde esanguratsurik antzematen gizonen eta emakumeen artean eta, kasu batzuetan (zehazki, automatikan, informatikan, telekomunikazioetan, industri antolatuetan, etab.) estatistikoki ikusten da egun emakumeak gizonen gainetik dabilzala irabazietan.

R.G.: Oraintxe bertan, langile kualifikatuen faltan gaude ULMA Taldean eta, bereziki, Taldeko enpresa teknologikoenetan.

Tuneletik guztiz irten barik bagaude ere, egia da negozio batzuetan ingeniarien, teknikarien eta arlo teknikoenean jarduteko pertsonen faltan dabilzala.

L.B.: Hori guztia bideratzeko oso inportantea da unibertsitate aurreko orientazioa. Nire ustez, hor badago hobetzeko tarterik.

Berebiziko garrantzia dauka jendeak informazio guztia eskura izateak zer ikasi eta non ikasi aukeratzeko. Batzuetan, karrera aldatu nahi duten gazteekin egiten dugu topo, lanik ez dutela aurkitzen eta. Horrek ez du esan nahi ezin daitekeen edozein karrera ikasi, baina hor sartzen denak jakin behar du zeri egin beharko dion aurre eta zer lan mota eduki ahal duen.

Denok gabilza kezkatuta enplegua dela eta ez dela, baina irudipena daukat hori ez dela gazteek gehien kontuan hartzen duten aldagaia zer ikasi erabakitzerakoan; irudipena daukat kasu handiagoa egiten diotela gustuko den dutenari.

C.G.: Badago modurik ingeniariaren planteatzen, aurreko etapetan baizik. Ikerketa duguna beheko mailetatik dator.

Inoiz eduki ez ditugun eskaerak edukitzen ari gara bai derrigorrezko bigarren hezkuntzan bai batxilergoan; prozesuak asko ari dira mugitzen eta aldatzen.

Haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan berrikuntza asko dago; ez ordea bigarren hezkuntzan eta batxilergoan, eta etapa horietan ikusten du jendeak zer gustatzen zaion, zer bide hartu... Hor ez dago hainbesteko berrikuntzarik metodologietan, eta gazteak lotu egin behar dira... Ez naiz ingeniariaren ari, beharago dauden mailak baizik.

Egia da negozio batzuetan ingeniarien, teknikarien eta arlo teknikoenean jarduteko pertsonen faltan dabilzala

>> **R.G.**

erakusteko ahalegina egiten ari gara, non oraindik ere gizonezkoak baitira nagusi, argi eta garbi.

L.B.: Rol kontu bat da, fakultatean horixe gertatzen zaigu. Bitxia da, baina auresangarri xamarra ere bai. Emakumeen portzentajea askoz ere handiagoa da Enpresen Administrazio eta Zuzendaritzan.

Enpresa zientzietan, oro har, emakumeak dira gehienak; ekintzailertzan, aldiz, ez. Hori lotu daiteke rolekin, izaerarekin, ikuspegi kulturalarekin... Hesi horiek nola bota aztertu beharko da.

B.P.: Hori eskolan eta gizartean eraiki beharra dago, ikasleek hortxe ikusten eta jasotzen dutelako transmititzen zaiena, telebistan ikusten dutena. Merkatuak rolen arteko diferentzia proiektatzen du. Halako gaiak lantzen ditugu gure ikasleekin. Irakasle ikasketetan badaude generoa lantzeko moduluak, baina indartu egin behar dira, ikusten baitugu Europa iparraldeko herrialdeetan curriculumaren ardatzean jarri dutela generoaren gaia. Sekulako arazoak daude generoa dela eta ez dela.

Unibertsitateko ikasle askori, gai honetaz galdetzen zaienean, barneratuta daukate ez dela arazo, gairiditutako kontua dela, eta etorkizuneko hezitzaileez gabiltza berbetan.

« **Unibertsitateak eraldaketarako mekanismo izan behar duela esaten ari gara. Hori horrela izan dadin, zein dira mahai gainean dauzkagun erronkak? Eta zein dira MUren erronkak?**

R.G.: Kanpotik ikusita, MUren erronka, nire ustez, enpresekin lankidetzarako engranajeak artikulatzea da, denok atera diezaiogun etekina bakoitzak egiten duenari. Gainera, lagungarria izango litzateke enpresarekiko lankidetzaren arloan MUK daukan ospe historikoa indartzeko, izan ere, beste unibertsitateekiko elementu bereizgarri hori oso inportantea da.



>> **R.G.:** RAUL GARCIA

Hona hemen beste erronka batzuk: MUK aldaketak sustatzea eredu pedagogikoetan; behar sozialetara egokitzea; genero berdintasuna lantzea; zer ibilbide akademikori ekin erabaki behar duten gazteei bizitza erraztea eta, oro har, aitzindaritza hartzea pedagogia, teknologia eta kudeaketa arloko berrikuntzetan. Izan bedi unibertsitatea enpresen bultzatzaile, alor horietan aurrera egiteko.

B.P.: Aldaketa pedagogikoei dagokienez, orain hurrengoan eskola batean etapak koordinatzen duen pertsona batek adierazi zigun badagoela GAP bat iaz batxilergoan sartu ziren ikasleen eta aurten DBHko 1. mailan sartu direnen artean. Frameworking-ean dago GAPa, gelan gai teknologikoa lantzean hartzen duten jarrerari dagokiona; esan zuenez, kostatu egiten zitzaizkien aldaketa batzuetara behar bezala egokitzea.

Aldaketa metodologikoetara egokitzeke estrategia bat zeukaten prestatua eta ikusi zuten DBHko 1. mailakoekin ez daukatela inolako arazorik. 2-3 urteko alde batez ari gara hitz egiten. Unibertsitateari iristen direnerako, atera kontuak.

Nire ustez, gai honetan ere unibertsitateak badauka zer landu. Guregana datozenerako, edo txipa

aldatuta daukagu, edo gu geu geletatik kanporatuko gaituzte. MUn ondo landu dugu kontua; berrikuntza metodologikoaren abangoardian gaude, eta proiektzioa egin dezakegu jakiteko ikasle horiek zelakoak izango diren beren etorkizun profesionalean.

Arlo honetan azterketa eta ikerlan franko egin da, eta hipotesiak mahai gainean daude. Kontua hortxe dago, ez da etortzekoa den zerbait, bertantxe daukagu, eta ikaragarriko eragina izango du etorkizuneko pertsonen eta profesionalen nolakoa taxutzeko.

C.G.: Nik orain esan behar dut gauza bat Begoñak esango zuela uste nuena. Kooperazioan –kooperatibetan izan ala ez izan– lan egiteko prest egongo diren gazteak prestatzen dihardugulako paradigma mantendu eta hobetu egin behar dugu. Horixe da gure bereizgarria. Guk ez ditugu norbanakoak lasterka egiteko prestatzen; guk prestatzen ditugu pertsonak lider izateko eta beste pertsona batzuk gidatzeko, eta denok batera eta aldi berean lasterka egiteko, kooperazioko lanean jarduteko; horretarako, ikaskuntza prozesuan kompetentzia ugari landu beharra dago.

B.P.: Bai, izaten eta egoten jakiteari buruzko kompetentziak; curriculumetan aspalditik idatzita dauden horiek.

Enpresagintzan LEINN ereduak daukagu. Landerrek hitz egin dezake horretaz. Beste tresna bat da, eta ikusten ari garen eredu aurreratuetan (metodologietan), eredu onetan, praktika onetan, aplikatzen ari dira eta eragina izaten ari da, modu horretan lanean dabilzan ikasleak askoz ere motibazio handiagoa daukate eta gelan. Eta ez gara soilik eskola pribatuek ari. Hezkuntza publikoko ereduak ari gara, Europakoek, estatukoek. Hemen ere oso praktika onak daude. Horietan guztietan one to one delakoa lantzen dihardute, oso balio kooperatibo indartsuak sustatzen dituzte eta hezkuntza komunitatearen barruan nabarmen egin du behera

« **Etorkizuneko langileez eta langileok garatu beharreko gaitasun eta kompetentziez dihardugunean, teknologiak eta espezializazioa beharrezkoak dira, jakina, baina baita ukigarria ez den guztia ere, balioak, arlo soziala...**

>> **B.P.**

gatazkak. Horrek esan nahi du ikasle horiek motibatuta lan egitera bultzatu ditugula, eta saiatuak direla, konprometitu egin direla eta katigatu egin direla.

Hori guztia enpresaren testuingurura eraman behar dugu. Izan ere, etorkizuneko langileez eta langileok garatu beharreko gaitasun eta kompetentziez dihardugunean, teknologiak eta espezializazioa beharrezkoak dira, jakina, baina baita ukigarria ez den guztia ere, balioak, arlo soziala... Hemendik hamar urtera hemen sartuko direnek bestelako espektatiba eta premiak edukiko dituzte, eta enpresak prestatuta egon beharko du horretarako, bestela zaila izango da hori kudeatzea.

L.B.: Epe ertainera, MUren erronka funtsezkoa izango da jakitea zelan jarraitu eraldatzen ikasleen ikasteko modua.

Irakasleok pasatu gara ikasleei gauzak irakastetik, dinamika eta metodologiak antolatzea, beraiek ikas dezaten. Gure funtsezko zeregina eta ekarpena ikaskuntza prozesu hori diseinatzean datza. Oraingo ikasleek, guk gure garaian edukitakoekin zerikusirik ez daukaten espazio eta dinamiken bidez ikasten dute. Formatu magistralean emandako ikasgaien garrantzia gero eta txikiagoa da eta gero eta gehiago ikasten da talde lanean jardunez, unibertsitateko geletatik kanpo, esaterako, enpresetan edo enpresak sortuz eta merkatura joz, beste

herrialde batzuetan egonaldiak eginez... hori ikaragarriko erronkak daukagu.

Kontua ez da halako dinamika curriculumean txertatzea beste barik, baizik eta presente egotea ebaluazio sisteman, memorietan, dinamiketan, zeren eta ikusten baitugu ikasteko modu hori askoz ere eraginkorragoa, koherenteagoa eta indartsuagoa dela, eta unibertsitateak aldatuz joan behar du.

Zenbait gauzatan abantaila gehiago daukagu, baina jakinean gaude abantailak berehala galtzen direla pedalei gogor eman ezik.

MUn daukagun erronketako bat, ikaskuntzako esperientzien diseinuan berritzaileak nola izan jakitea da. Ikaskuntza horretan, gelak rol bat bete behar du, baina ikasleak unibertsitatean egiten duen bizitzan badaude beste elementu batzuk ere, eta horietan balio berriak egon beharko dira, dinamika berriak. Digitalizazioa eta beste kontuan hartu beharko dira. Hor daukagu erronka garrantzitsu eta interesgarri bat. Daukagun abantailen artean bat, zera da: gizartean gero eta inportanteagoak izan behar dira ezagutza eta talentua.

Aberastasunaren sorkuntzaren estandarrari eta ongizatearen estatuari eusteko, talentua sortzea dugu erronka handia; jende trebatua funtsezkoa izango da, eta unibertsitatea, elementu gakoa. Beraz, ikaragarri ondo egin beharko ditugu gauzak.

R.G.: Esan duzuenaren haritik, kooperazioaren balioaren gaia gehituko nuke nik, bai eta sostengarritasuna ere, zeina oso lotuta baitago kooperazioarekin, nik uste.

Denon onerako kooperatzea, dena delako komunitatearentzat; gu denon, komunitate handiaren, planeta osoaren onura helburu. Erronka handia da kooperazioaren eta sostengarritasunaren aldeko sentiberatasun hori ere lantzea eta ikasleen prestakuntzan sartzen saiatzea, txip hori natural txertatuta daukatela atera daitezen, eta gerora, beren bizitza

profesionalean, printzipio horiek kontuan hartuz lan egin dezaten.

B.P.: Giltzarria zera da: hezkuntzak izanarazten duena, horixe da pertsona. Hori dela eta, curriculumen barruan ezinbestekoak direla uste dugun eduki asko alde batera utzi behar ditugu eta beste elementu batzuei lekua egin. Eta elementu diodanean, esan nezake kompetentziak, balioak, edukiak... etorkizun hobe baterako ezinbesteko direnak.

ULMA Fundazioa

Atal honetan egunean jartzen zaitugu zure Fundazioak egiten duenari buruz, ULMA osatzen dugun pertsonekin lankidetzan, gizartea eredu gizatiarrago eta iraunkorrago batera eraldatzeko dugun konpromisoa gauzatzeko modu gisa.

Beste urtebete jarduera bizian

Aurtengo helburuen artean aipagarri: bilketa solidarioak, lan bizitza eta familia bateratzea, eta euskararen sustapena.

| Errefuxiatu siriarrekin elkartasuna

2015. urtearen bukaerara arte egindako kanpainaren fruitu, ULMA Fundazioak ia 6.000 euro batu zituen zu bezalako pertsonen egindako ekarpenei esker. Diru hori baliatu zen aurtengo urtarrilean ACNURrek oinarritzko elikagaien 500 lote eta mantak bidal zitzen Siriara, Madaya herrian errefuxiatu familien artean banatzeko.

| Bazkide kanpaina: Berria eta Goiena Klub

ULMA lan egiteagatik, Berria eta Goiena Kluben urteko bazkideztza egiteko aukera eman genuen, urteko kuotan deskontu handiak eginda. Bi komunikabideok euskaraz argitaratzen dira osoki eta, kanpainaren bidez, erabilera ere sustatzen dugu.

| Start Innova: Ekintzailtza sustatuz

ULMA Fundazioak Start Innova programan parte hartzen du. Programaren bidez, enpresa, gizarte edo bestelako ekintzailtza proiektu bat garatzeko behar diren metodologia eta tresnetan trebatzen dira gazteak.

Edizio honetan, Oñatiko Elkar Hezi ikastolan batxilergoa egiten dabiltzan ikasleak trebatu dira, eta bertako hiru ikasle bost finalisten artean sartu ziren. Bigarren, hirugarren eta bosgarren postuak hartu zituzten azken sailkapenean, hainbat ikastetxetako 750 ikasle baino gehiagoren artean.



ULMA Fundazioak aurtengo martxan jarritako egitasmo >>

| Ibilketa nordikoari buruzko tailerra

"Izan osasuntsu" osasun programaren barruan, otsailaren 23an ibilketa nordikoari buruzko hitzaldi/tailer batera joateko aukera izan genuen, Nordic Walking Cluben eskutik. Bertaratutakoek aukera izan zuten ibilketa mota hau osasunerako zein mesedegarria den jakiteko eta teknika bikain honi ekiteko jakin beharrekoak praktikan jartzeko.

| Ilunbera irteera

Martxoaren 27an, ohiko irteera egin zen Ilunbera, Gipuzkoa Basket Cluben eta FC Barcelona Lassaren arteko saskibalo partida ikustera. Aurreko urteetan bezala, autobus bidaia eta sarrerak doan izan ziren ULMAko langileentzat eta langileon familiarteko guztientzat.

| Eskolako materialaren bilketa Sahararako

Eskola materiala bildu zen Saharako Tindufeko kanpamentuetan bizi diren haurrei bidaltzeko. Guztira, 2.000 kilo koaderno, estutxe, pintura, boligrafo, etab.

eta 242 motxila; horixe izan zen haraino bidaltzea lortu genuena, Hermansoloña (Oñatiko Anaitze Solidarioak) GKEaren ezinbesteko laguntzarekin, GKE hori arduratu baitzen bildutako material guztia sailkatu eta furgonetan bidaltzeaz. Furgoneta zuzenean joan zen Oñatitik saharar kanpamentuetaraino.

| Bidegorriak euskararentzat

ULMA euskara erabiltzeko motibazio taldeak "Bidegorriak euskararentzat" izeneko proiektu soziokulturala bultzatu du. Helburua, hauxe: euskarak, mundu honetan hizkuntza gutxitua den aldetik, hemen bere espazio propioa eduki behar duela eta denok bereziki zaindu behar dugula aldarrikatzea. ULMA maitasun bereziz zaintzen dugu.

Proiektuak hiru fase desberdin izan zituen:

· Martxo-apirila-maiatza:

Hil horietan hizkuntza ekologiaren dekalogo argitaratu zen. Hala, munduko hizkuntza desberdinen arteko bizikidetzak arrauk ikasi ahal izan genituen astero.

Aldi berean, gaiari buruzko galdera eta erantzunen hizkuntza lehiaketara jolastu ginen.

· Ekaina-uztaila:

Euskararen hormairudiak zuhaitz itxurakoak ziren. Langileek hosto itxurako eranskailuetan idatzi zituzten beren konpromisoak, gero hosto horiek zuhaitzetan zintzilikatzeko.

· Iraila:

Proiektua amaitzeko, joan den irailaren 23an ULMA euskararen erabilerarekin hartua duen konpromisoa erakutsi genion Oñatiko herriari; horretarako, Oñatin bizikleta martxa bat antolatu zen ULMAren negozio guztien aurretik doan bidegorrian zehar. 150 pertsona baino gehiagok parte hartu zuten ibilbidean. Martxa plazan bukatu zen, Amaia Txintxurretaren musika ekitaldiarekin. Gauean KALAKAN taldearen emanaldia izan zen Parrokian, Oñatz Dantza Taldearen eta Ganbara Abesbatzaren lankidetzaz.

+ 1.000 pertsonak parte hartu zuten egitasmo arrakastatsu honetako jardueraren batean



<< Ekaineko haur tailerretan ibili ziren parte hartzaile batzuk

| Udako haur tailerrak

Guraso langileei laneko bizitza eta familia bateragarri egiten laguntzeko, ULMA Fundazioak lehen haur tailerrak antolatu zituen ULMA Taldearen Oñatiko instalazioetan. Tailerrak ekainean eta arratsaldean egin ziren, hots, etxeko gaztetxoek eskolara soilik goizez joan behar dutenean; arratsaldeko ordu 2ak eta 6ak bitartean, ULMAko guraso langileen lan ordutegian.

Tailerretan 46 haur ibili ziren 4 monitoreren laguntzaz, eta inguruz gaituen natura zaintzeko daukan inportantzia jabetzeko aukera izan zuten jolas, esperimendu eta eskulanean bitartez. Gainera, irteerak egin eta ingurunea behatzen ere ibili ziren.

Halaber, beste parte hartzaile batzuek beren eskulana bidali zituzten eta ekainaren 30eko jaialdira batu ziren, tailerrei amaiera emateko.

Bai gurasoek bai haurrek lehen edizio honen gainean egindako balorazioa oso positiboa izan zen, parte hartzaileek bete zuten inkestaren emaitzetan ikusten denez.

| Karamelu solidarioak

APANekin (Haurrei Laguntzeko Elkartea) eta minbizidun haurrei laguntzeko FLEXER Fundazioarekin lankidetzan, karamelu solidarioen erosteta antolatu dugu. Orduz geroztik, karameluak ULMA Taldearen Kontseilu Gelan jartzen dira. Negozio guztiak animatu nahi ditugu beren karameluak ere solidarioak izan daitezen kausaren baten alde.

| Elikagaiak biltzeko kanpaina

Bilketa solidario hau elikagaiak Elikagaien Bankura bidaltzeko antolatzen da.

Gero, Bankuak berak inguruko udaletxeetara bidaltzen ditu familia behartsuen artean banatzeko.

Bilketan, batez ere esnea batu zen, une hartan gehien eskatzen zena esnea zelako, baina barazki, lekale eta arrain kontserbak ere bildu genituen. Eskerrik asko, beti bezala, zuen laguntza atseginagatik.

| Laguntza psikologikoa

Oñatiko San Martin Egoitzan bizi eta mendekotasuna duten adinekoen familiartekoei laguntza psikologikoa emateko zerbitzua. Taldean egiten diren saio hauek ULMA Taldeko Giza Baliabideetako zuzendaria eta era berean psikologoa ere den Joseba Martinezek koordinatzen ditu, bere borondatez zeharo, ostiral arratsaldeetan 6etatik aurrera.

Saioen helburua familiartekoen ondoan egotea eta beren egoera pertsonala ahalik eta onena izateko jarraibideak ematea da.

Horretarako, erlaxazio ariketak, programazio neurolinguistikoko eta talde laguntzako teknikak erabiltzen dira. Hori guztia, antsietatea nahiz ondoeza eragin dezaketen egoerei aurre egiten laguntzeko.

Ekain-uztaileko lehen fasea oso positiboa izan zen bertaratutakoek eta egoitzako langileek egindako balorazioaren arabera; hori dela eta, bigarren faseari ekin zaio, urritik urte bukaerara arte.

<< Mendekotasuna duten adinekoen familiartekoei zuzendutako laguntza psikologikoko saioen une bat



| Boluntario soziala Hondurasera joateko

ULMA Fundazioak deialdi bat egin zuen uztailan ACOES (Lankidetzeta eta Ahalegin Elkartea) GKEaren eskutik Hondurasera bidaiatzeko prest legokeen norbait identifikatzeko. Helburua boluntario gisa lan egitea da, hilabetez laguntza behar dutenei lagunduz, norberak ondoan egiten dakiena erakutsiz.

Baina deialdiak ez zuen erantzunik izan. Eutsi egingo diogu ideari eta 2017an atzera ere planteatuko dugu proposamena. Pertsona hori zu zeu izan zintezkeela uste baduzu, has zaitetz datorren urterako agenda planifikatzen eta opor solidarioetarako denbora tartea gordetzen.

| Grezian errefuxiatuta daudenezako bilketa

Egun bertsuetan, Europako mugetara iristen diren errefuxiatuei laguntzen diharduen Hotz Oñati herritar plataformak materiala bildu eta Grezian errefuxiatuta daudenei bidaltzeko kanpaina bati ekin zion. Greziarainoko bidalketak ordaindu ahal izateko, bilketa antolatu zuten Oñatiko enpresa batzuetan, bertan itsulapiko solidarioak jarrita. ULMA Fundazioak bere negozio guztietan jarri zituen halako itsulapikoak eta hilabetean 100 euro pasatxo batu ziren. Batere eza baino hobe, dena baita lagungarri.

| Mundukide Fundazioaren kanpaina "Minutu bat egunero"

Urriaren 17an, hots, Pobrezia Ezabatze Nazioarteko Egunean, Mundukide

Fundazioaren "Minutu bat egunero" kanpaina abiatu zen ULMA, bazkide berriak erakartzeko helburuarekin. Siplea da proposamena: gure hileko soldatan eguneroko minutu bati dagokion balioa Mundukideri ematea, hegoaldeko herrialdeetan martxan dauzkan proiektuetan lanean jarraitu ahal izateko.

Kanpaina hau gure kooperatibetan izango da abendura arte, eta gero Arrasateko beste kooperatiba batzuetara eramango da.

| ERRIGORA: Nafarroa hegoaldeko uzta, euskararen alde

Azaroaren 8ra arte, ERRIGORAren bitartez euskararen aldeko Nafarroa solidarioaren produktuak erosteko aukera eman genuen. Kontuan izan behar da biltzen den zenbatekoaren %20 euskara Nafarroa hegoaldean zabalteko proiektura bideratzen duela ERRIGORAK.



| Gurutze Gorriaren jostailu bilketa

Urtearen amaierarekin, Gurutze Gorriak jostailuak biltzeko egiten duen kanpaina solidarioa batzen da ULMA Fundazioa.

Biltzeko kaxak abenduaren 16ra arte egongo dira zure kooperatiban. Bertan utz ditzakezu 0 eta 15 urte bitartekoentzako jostailuak, berriak, ez sexistak eta ez belikoak, adierazitako adinerako segurtasun arauak betetzen dituztenak.

Ez badakizu zer jostailu erosi edo ez badaukazu astirik, badaukazu aukera kanpainen kolaboratzeko, izan ere, 5, 10 edo 20 euroko ekarpen ekonomikoa egin dezakezu Gurutze Gorriak faltan duena erosi dezan; horretarako:


- Dirua sar dezakezu Gurutze Gorriaren kontuan: ES22 3035 0001 510010018156

- Edo bestela zure Pertsonal Departamentuari eska diezaiokezu dena delako kopurua jartzeko eta 2017ko urtarillaren 5ean ordainduko den abenduko nominatik deskontatzeko.

Eskuratutako jostailu guztiak inguruko udaletxeetan entregatuko dira, familia behartsueneren artean banatzeko.

Datozen Gabonetan, denon laguntzarekin, zure inguruan ez da egongo jostailu barik geratuko den umerik.





Arantzazuko basilika, Oñati

Basilika berria 1950ean hasi ziren eraikitzen. Liturgia 1955ean ireki zen eta 1969an kontsakratu zen. XIX. mendean eraikitako eliza zaharra suak sunteitu eta haren gainean altxatu zuten berria. Eliza zaharraren oinplanoa gorde egin zen, izan ere, egungo kriptada. Proiektuaren egileak Saenz de Oiza eta Luis Laorga arkitektoak izan ziren. Horiekin batera, Jorge Oteizak esku hartu zuen fatxada nagusian; Lucio Muñoz pintorea absidea dekoratzen ibili zen; Eduardo Chillida eskultoreak sarrerako ate nagusiak landu zituen; Frai Javier Maria Alvarez de Eulate beirateez arduratu zen eta Nestor Basterretxea pintorea, berriz, kriptako paretak dekoratzeaz. Fatxada nagusiarri begiratzean, atentzioa ematen du diamante punta eran egindako lanketak. Multzoa osatzen duten hiru dorreak, hots, kanpandorrea –metro batzuk aldentuta– eta fatxada markoztatzen duten biak, diamante punta eran landutako kareharrizko blokez eginda daude; horrek, berez, zuzeneko zerikusia dauka, istorioak kontaktzen duenaren arabera, Amabirjinaren irudia agertu zeneko elorri arantzarekin.

ERRETIROAK: 2016ko irailaren 1etik abenduaren 31ra



Eskerrik asko denoi eta ondo pasatu! Zorionak